

Zaraitzuera aztertzeako ekarpen berriak (3 - Eaurta: bukaera)

KOLDO ARTOLA*

Oraingo saio honetan Eaurtako euskara aztertzeari eskaintzen ari gatzazkion lanaren azken zatiari eutsiko diogu, horretarako ‘nor-nori-nork’ saileko aditz laguntzaileak zein bere lekuan kokatuz. Hemendik aurrera, baina, aditz triperstsonal hauek kokatzeko prestatu ditugun jarraiko tauletan –6.etik 11.erainokoa, alegia– datuak garbiro azaltzen direnez eta lana, berez aski astuna, sobera ez luzatzeagatik ez dugu adizki bakoitzari egokituriko adibiderik emango, orain arteko saioetan egin dugun moduan, grabazioetatik ateratako bakarren bat izan ezik, nahiz, inoiz, hauekin erkatzeako egoki iruditu zaigun eskuz harturiko besteren bat orobat ekarriko den.

Taula 6

Aditz laguntzaile iragankorra (nor-nori-nork - ‘zuk –edo xuk–... niri’):
6-01 - 6-12, orainaldiko singularra; 6-13 - 6-24, iraganaldiko singularra.

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93	adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
6-01 a	didazu	dadazu		6-13 a	zenidan	zinadan	
6-01 b	id. (xuka)		dadaxu	6-13 b	id (xuka)		xinadan
6-02	didak	dadak	dadak	6-14	hidan	adan	yadan, iadan
6-03	didan	dadan	dadan	6-15	hidan	adan	yadan, iadan
6-04	dit	dada	dada	6-16	zidan	zadan	zadan
6-05	tok. alok	diadak	diadak	6-17	tok. alok	ziadakan	ziadakan
6-06	nok. alok	diadan	diadan	6-18	nok. alok	ziadanan	ziadanan
6-07 a	zuk. alok	diadazu		6-19 a	zuk. alok	ziadazun	
6-07 b	xuk. alok		diadaxu	6-19 b	xuk. alok		ziadaxun
6-08	didazue	dadazie	dadazie	6-20	zenidaten	zinadayen	zinadaen
6-09	didate	dadaye	dadae	6-21	zidaten	zadayen	zadaen
6-10	tok. alok	diadayek	diadaek	6-22	tok. alok	ziadayekan	ziadaekan
6-11	nok. alok	diadayen	diadane	6-23	nok. alok	ziadayenan	ziadaenan
6-12 a	zuk. alok	diadazie		6-24 a	zuk. alok	ziadazien	
6-12 b	xuk. alok		diadaxe	6-24 b	xuk. alok		ziadaxen

* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografia Mintegikoa.

Esker biziak eman nahi dizkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, laguntzaile izan dudana Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziatua.

adizki-zk.adibideak

- 6-01 b SK: xúk emán dadaxú pelótara
 6-02 PA: emán dadák
 6-03 CK: ík sáldu dadán étxea éni
 PA: emán dadán
 6-04 CK: orái errán dadá
 SK: apézak emán dadála
 CK: kor, katxárro korrék, akáitzen dará... bístara
 6-07 b SK: tíak emán diadaxú sagárra
 JU: emán diadáxu líbrua
 6-08 CK: sáldu zió; (zuzenduz:) sáldu dadazié éni
 (hots, Carmelok aurrenik era bipertsonala emanik ere ondoren zuzendu egin zuen, 6-14, 6-17, 6-22 eta 6-41 zk.etako adibideak ematean gisa berean jokatzuz)
 PA: zék sáldu dadázie étsea
 6-09 PA: sáldu dadaé
 JU: nióxu kóntent, adískídiek emán baitadaé... líbrua bat sólo
 SK: pelóta... aixkídeek eman dadaéna xú zúri
 SK: orái erráten bádia(d)é...
 (era bitxia hauxe, izan ere 'dadae' gisako adizkia da arruntena Zaraitzun)
 6-12 b PA: sáldu diadáxe étsea
 JU: emán diadaxé líbrua
 (nola gehiago, 'diadaxe' edo 'diadaxie'? galdetu genion Javierari, eta hark: 'diadaxé, cortó')
 6-13 b SK: báxu bízpur úrte sáldu xínuen; (zuzenduz:) sáldu xinádan étxea
 PA: xúk atzó emán xinadán sagárra
 6-14 CK: sáldu iuén étxea éni; (zuzenduz:) ík sáldu iadán étxëa
 PA: sáldu yadán
 PA: emán yadán
 6-15 CK: ík àtzo sàldu iadán étxea, María
 PA: emán yadán
 6-16 CK: ta géro, erràn zádán...
 SK: abuélak ere báí, sáldu xadán; (zuzenduz:) sáldu zádán
 JK: éni emàten zádán, zómat...?
 PA: eta dirúa artú ta ordúan, órduan, eskriturará egórri zadá(n)
 CK: ta náusi... erákutsi zádának, dèitzen zén Pascual Estaboli-te
 6-17 CK: áitak sáldu zikán étxea; (zuzenduz:) sáldu ziadakán
 PA: emán ziadakán
 6-19 b PA: saldú ziadaxún
 JU: errán ziadaxun
 JU: eta... arék èrran ziadaxún, mutíko korí –erákutsi ziadaxún fotóan–, mutíko kórre (sic) zéla
 SK: maéstroák èman zadáxun azóte bat
 (era alokutiboen barruko *i*-aren galera maizago nabaritzen dugu Salvadorren erantzunetan gainerako informatzaileenetan baino; ikus, halaber, 6-24-b zk.ko haren erantzuna)
 6-20 SK: emán zinadaén ságar

- 6-21 PA: eman zinadaén
SK: aixkídeek sáldu zadaién, sáldu zadaén
(bi adizki hauetatik Salvadorrek azkena hobetsi zuen)
CK: nik, uskára... ikási nuén... étsen; eskólan... etzádaén erá-
kutsí
- 6-22 CK: sáldu ziékan; (zuzenduz:) sáldu ziadaekán
PA: emán ziadaekán
- 6-24 b PA: sáldu ziadaxén bérek
JU: emán ziadaxén
SK: aixkídiek sáldu zadáxien

6-25 - 6-36, orainaldiko plurala; 6-36 - 6-48, iraganaldiko plurala.

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
6-25 a	dizkidazu	daztazu	
6-25 b	id. (xuka)		daztaxu
6-26	dizkidak	daztak	daztak
6-27	dizkidan	daztan	daztan
6-28	dizkit	dazta	dazta
6-29	tok. alok	diaztaek	diaztaek
6-30	nok. alok	diaztan	diaztan
6-31 a	zuk. alok	diaztazu	
6-31 b	xuk. alok		diaztaxu
6-32	dizkidazue	daztazie	daztazie
6-33	dizkidate	daztaye	dazta(i)e, dazte
6-34	tok. alok	diaztaiek	diaztaiek
6-35	nok. alok	diaztayen	diaztaene
6-36 a	zuk. alok	diaztaie	
6-36 b	xuk. alok		diaztaxe

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
6-37 a	zenizkidan	zinaztan	
6-37 b	id. (xuka)		xinaztan
6-38	hizkidan	aztan	yaztan, iaztan
6-39	hizkidan	aztan	yaztan
6-40	zizkidan	zaztan	zaztan
6-41	tok. alok	ziaztakan	ziaztakan
6-42	nok. alok	ziaztanan	ziaztanan
6-43 a	zuk. alok	ziaztazun	
6-43 b	xuk. alok		ziaztaxun
6-44	zenizkidaten	zinaztayen	zinaztaen
6-45	zizkidaten	zaztayen	zaztaen
6-46	tok. alok	ziaztayekan	ziaztayakan
6-47	nok. alok	ziaztayenan	ziaztanen
6-48 a	zuk. alok	ziaztazien	
6-48 b	xuk. alok		ziaztaxen

- 6-25 b SK: zuk emán daztaxu guziák
(Espartzan honela, orobat, eta baita *daztaxu* ere. Izenordea, baina, zuketan eman zuen Salvadorrek eta adizkia xuketan)
- 6-26 CK: emán dazták sagárrak
- 6-28 SK: apézak eré eman daztá
- 6-29 CK: aíták eré emán diazták orái berían
- 6-30 CK: emán diaztán sagárrak
- 6-31 b PA: sáldu diaztaxú
JU: emán diaztáxu líbruak
SK: emán daztaxú
(oroí bedi 6-19-b zk.ko Salvadorren erantzunari eginiko iruzkina, tarteko *i*-aren galerari dagokionez; ikus bitez, gisa berean, 6-36-b, 6-43-b eta 6-48-b zk.etao adibideetan, akats bera agerian ezartzen duten erantzunak ere. Informatzaile honengan hain nabaria den gabezia ez da, dena den, hemendik aurrera gehiago aipatuko)
- 6-32 CK: emán daztazie
PA: emán daztazie ní
PA: sáldu daztazie guziák
- 6-33 SK: emán daztaie
JU: nióxu kóntent, adískídiek emán baitázte
(‘baitazte’ edo ‘baitaztae’? galdetu genion, hark *bai, bai...* erantzunez, biak ontzat emanez, antza)
- PA: aixkídek emán daztaénak ítuen ónik
- 6-34 CK: emán diaztaék
PA: emán diaztaék

- 6-35 CK: emán diaztané
PA: emán diaztáne
(Pablo izan zen kasu honetan, tokako eta nokako alokutiboak erabiltzean, azentuera desberdina erabili zuena)
- 6-36 b PA: sáldu diaztaxé
JU: apézek emán diaztáxe
SK: aixkídeek eré emán daztáxie
- 6-37 b SK: xúk emán xinádan; (zuzenduz:) emán xináztan ságar guziák
(Salvadorrek, honetaz gainera, *zinastaxun* era nahasi bezain behar-gabe edo erredundantea eman zuen)
PA: áita, xúk átzo emán xinastán guziák
JU: emán xinastán líbru guziák
- 6-38 CK: ík emán iastán sagár guziák átzo
PA: sáldu yastán
JU: emán yastakán
(Javierak, *yastan* ez aski, nonbait, eta honakoa bota zuen, era zuzen bati alokutiboari erantsi ohi zaion bukaera beharrik gabe erantsiz)
- 6-39 PA: sáldu yastán
- 6-40 SK: maéstroak emán zastán guziák
- 6-41 CK: áitak sáldu ztikán étxeak; (zuzenduz:) sáldu ziaztakán
PA: sáldu ziaztakán
- 6-43 b PA: sáldu ziaztaxún
SK: anáiak eré sáldu zastáxun
- 6-44 PA: sáldu zinastaén
SK: emán zinadaén, zinastaén guziák (plurala laguntzaz emana)
- 6-45 SK: aixkideék eman zadaén, zastaén (plurala laguntzaz emana)
PA: étseak, sál zastaénak aixkídek, yítuen zúrez
- 6-46 CK: sáldu ztiékán; (zuzenduz:) sáldu ziaztakán
PA: sáldu ziaztakán
- 6-48 b PA: sáldu ziaztaxien
JU: emán ziaztaxén
SK: kósínék, emán zastaxién guziák
(Salvadorrek frantsesatik, mailegu gisa, hartu ‘cousin’ hau ‘lehengusu’ baldin bada ere, Carmelok, 7-18 zk.ko adibidean, *guzialen* erabiliko du ‘lehengusu propio’ esanahiaz)

Taula 7

Aditz laguntzaile iragankorra (nor-nori-nork - ‘zuk –edo xuk–... guri’):
7-01 - 7-12, orainaldiko singularra; 7-13 - 7-24, iraganaldiko singularra.

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eurta 1872	Eurta 1989-93
7-01 a	diguzu	daukuzu	
7-01 b	id. (xuka)		daukixu
7-02	diguk	daukuk	daukik
7-03	digun	daukun	daukin
7-04	digu	dauku	dauki
7-05	tok. alok	diaukuk	diaukik
7-06	nok. alok	diaukun	diaukin
7-07 a	zuk. alok	diaukuzu	
7-07 b	xuk. alok		diaukixu
7-08	diguzue	daukuzie	daukizie
7-09	digute	daukuye	daukie
7-10	tok. alok	diaukuyek	diaukiek
7-11	nok. alok	diaukuyen	diaukine
7-12 a	zuk. alok	diaukuzie	
7-12 b	xuk. alok		diaukix(i)e

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eurta 1872	Eurta 1989-93
7-13 a	zenigun	zinaukun	
7-13 b	id (xuka)		xinaukien
7-14	higun	aukun	yaukien
7-15	higun	aukun	yaukien
7-16	zigun	zaukun	zaukien
7-17	tok. alok	ziaukukan	ziauki(k)an
7-18	nok. alok	ziaukukan	ziaukinan
7-19 a	zuk. alok	ziaukuzun	
7-19 b	xuk. alok		ziaukixun
7-20	zeniguten	zinaukuyen	zinaukien
7-21	ziguten	zaukuyen	zaukien
7-22	tok. alok	ziaukuyekan	ziaukiekkan
7-23	nok. alok	ziaukuyenan	ziaukienan
7-24 a	zuk. alok	ziaukuzien	
7-24 b	xuk. alok		ziaukix(i)en

adizki-zk.adibideak

- 7-01 a SK: zuk sáldu dáukizú étxea
7-01 b PA: xúk sáldu daukixú
(Espartzan honela: *xúk èman daugíxu sagárra*)
- 7-02 CK: emán daukík sagárra
7-03 CK: ík sáldu daukín gúri étxea
7-04 PA: niók kontént ápezak sáldu báitaukí¹ étsea
JU: aítá, giáudetxu kóntent porque ámigöak emán baitaukí líbröa; èman... baitáuiki²
SK: étxe... abuélok sáldu daukién étxea da xúri
PA: apézak sáldu daukién étsea dúk zúri
(esaldi erlatibo hauetan, ohiki, ‘hark guri hura’ [*dauki* + *-(e)n*] eta ‘haiek guri hura’ [*daukie* + *-(e)n*] emaitza bera izan dezakegu)
- 7-07 b PA: sáldu diaukixú
SK: abuéloak eré sáldu daukíxu
(Salvadorrek baina, hala arestiko 7-04 zk.ko erantzunean nola 4-40 delakoan, *abuélok* eman zuen, mugatu gabe, agian haren beraren aitatxi edo, buruan zuela)
- 7-08 PA: zék sáldu daukizié étsea
7-09 PA: étse sáldu daukiéna³ dúk... búrdina
JU: aítá, giáudetxu kóntent, porque... ámiguék emán baitaukí líbru bat
(*baitaukie* itxaron zitekeen kasu honetan, zalantzarik gabe)
- 7-11 CK: sáldu diaukíne bát sólo
SK: sáldu daukíne
7-12 b PA: sáldu diaukíxie
JU: aítá, amíguek, emán diaukíxie... líbru bat
JU: sáldu diaukíxe
SK: arástian sáldu daukixié
7-13 a SK: sáldu zináukun étxea (adizkia laguntzaz emana)
(gure aldetik adizki honen ordez, agian, *zinaukin* edo *zinaukien*-en aldeko proposamena egin beharko bagenuen ere, Salvadorrek, ‘hark gu-

¹ Emaitza desberdina dugu XX. mendearen bukaera aldean Eaurtan bildu dugun *dauki* eta XIX. mendean jaso zen *dauku*-ren artean. Aspaldiko dotrinetan azken era honetakoak dira nagusi; honela, Eaurtakoan, *cer eracustendaucu Doctrina Sanducu* (sic) *lemizico parteac?*; Otsagikoan, *Cristoc eracusten daucuna bezala*; Orontzekoan, *aíta confesoreac* (sic) *ematendaucum* (sic) *penitenciareren cumplicea*; Itzallekoan, *eta vercean emanen daucula gloria sandua*; eta Igarikoan, azkenik, *Jangoicoac ematen daucuna-requin contentaguitela*. Espartzan ordea, *daugi* eman zigun Jacinto Ramírez informatzaile bikainak –pluralean, logika beretik, *dauzki-*, nahiz herri honexetako Telesfora eta Nicolás Elarre anaiarrebek emaitza desberdinak eman zituzten: *gautza guti erman daukuzie gureganik* moduko esaldia bildu baiden behin aipatu andereari, eta *emazte karek egiten ziaukixun bazkaria* moduko beste bat, haren anaiari.

² Taula honetako Javieraren erantzunetan *-auki-* ageri da, 2. Taulakoak ematean, nagusiki, *-auku-* delakoaren aldeko hautua egin bazuen ere. XIX. mendeko emaitzak aztertzean ere, dena den, *zaiku* dugu ‘hura guri’ kasuan (2-12 zk.) eta *dauku* ‘hark guri’ delakoan (7-04 zk.), Espartzan, 1991-92an eta bi kasuotarako, *zaugi* eta *daugi* gisako emaitzak –egiturari dagokionez, bederen, haiek baino logikoaok– bildu ditugula.

³ Orontzeko dotrinan, XIX. mendean Eaurtan bildu eta koadroetan ageri denarekin bat, ‘dauku-ye’ dugu: *cala nola guc parcatzen baitrauztegu guri gaizqui eguindaucuyener*. Eta Itzallekoan ere gauza bera: *cala nola guc parcazenbaitaztegu munducontan ofensa eta agravio eguindaucuyen gucier*. Otsagin eta Ezkarozen, ordea, gure egunotan, *daukie* bildurik gaude.

- ri' kasurako -7-16 zk.ko adibidea-, *zaukun* eman zuela kontuan hartuz, *zinaukun* honek ez dirudi hain desegokia)
- 7-13 b PA: xuk sáldu xinaukién étxea
(iraganaldiko adizki hauen bukaera dela eta, ustez 'xuk guri', 'hik guri' eta 'hark guri' kasuetarako logikoagoak liratekeen *xinaukin*, (*i*)*aukin*, *zaukin* (sing.) eta *xinauzkin*, (*i*)*auzkin*, *zauzkin* (plur.) adizkien ordeez -baina batzuetan hauekin batera ere- -*kien* bukaeradunak ditugu, honen ondorioz zenbait aldiz nahasmena sortzen dela. Espartzan ere, dena den, bukaera bereko erantzuna jaso genuen kasu honetarako: *xinaugien*)
- 7-14 CK: ík sáldu iaukín, gúri, étxea
PA: sáldu yaukién
- 7-15 CK: fan dén astían saldú yaukién, saldú iaukién étxe bat
(*'iaukin, iaukien, yaukien... zein ongiena?'* Carmelori galdetu eta hark *iaukien* erantzun zuen)
PA: sáldu yaukién
- 7-16 SK: apézak eré sáldu zaukún gúri
PA: gaudék kontént apézak sáldu báizáukien étsea
(esanguratsu bezain deitoragarria Pablok, esaldiaren hasierako 'egon' aditzetiko era trinkoa ematean, agerian ezarri tarteko *i*-aren galera; horretan Javierak finki jokatu zuen beti, jarraiko esaldian ikus daitekeenez)
JU: giaudétxu kóntent apézak sáldu baitzaukién étxea
(Espartzan *zaugien*)
- 7-17 PA: apézak sáldu ziaukián
JU: sáldu ziaukíkan
CK: emán zaukikán
(*i*-aren tartekapenik gabeko adizki hau agian, honetarako baino ego-kiago, 'hark hiri hura' kasurako izan liteke)
- 7-18 CK: guziálenák erósi ziaukinán étxea (adizkia laguntzaz emana)
(Azkuek, *guzialen* (BN-s), prima carnal, *cousine germaine* dela dio. Carmelok berak hala ere, beste une batean, esanahia zehaztu nahiz nonbait, zera esan zuen: *orrén emáztëa eta ní, kosín guziálen⁴*)
PA: apézak sáldu ziaukinán
- 7-20 SK: emán zináukien
PA: sáldu zinaukién
- 7-21 SK: aixkideék eré sáldu záukien
PA: sáldu zaukién
- 7-22 JU: sáldu ziaukiékan (adizkia laguntzaz emana)
- 7-23 PA: sáldu ziaukienán
CK: arixkídek eré emán zaukienán eltzáur bat
(beste zenbait alditan -3-67 eta 3-74 zk.etako erantzunetan, adibidez-*giltzáur* eman zuen Carmelok)
- 7-24 b PA: sáldu ziaukixién
JU: bát gérran íl... ziaukixièn
JU: sáldu ziaukíxen
SK: sáldu zaukíxien

⁴ Mitxelenak prestatu *Un vocabulario aezoano, salacenco...* izenburuko lanean, *guzialen* ageri da zaraitzueraz, galdera-ikur batez lagundurik bada ere.

7-25 - 7-36, orainaldiko plurala; 7-37 - 7-48, iraganaldiko plurala

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
7-25 a	dizkiguzu	dauzkuzu	
7-25 b	id. (xuka)		dauzkitxu
7-26	dizkiguk	dauzkuk	dauzkik
7-27	dizkigun	dauzkun	dauzkin
7-28	dizkigu	dauzku	dauzki
7-29	tok. alok	diauzkuk	diauzkik
7-30	nok. alok	diauzkun	diauzkin
7-31 a	zuk. alok	diauzkuzu	
7-31 b	xuk. alok		diauzkitxu
7-32	dizkiguzue	dauzkuzie	dauzkitzie
7-33	dizkigute	dauzkuye	dauzkie
7-34	tok. alok	diauzkuyek	diauzkiek
7-35	nok. alok	diauzkuyen	diauzkine
7-36 a	zuk. alok	diauzkuzie	
7-36 b	xuk. alok		diauzkitx(i)e

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
7-37 a	zenizkigun	zinauzkun	
7-37 b	id. (xuka)		xinauzkien
7-38	hizkigun	auzkun	yauzkien
7-39	hizkigun	auzkun	yauzkien
7-40	zizkigun	zauzkun	zauzkien, zauzkin
7-41	tok. alok	ziauzkukan	ziauzkian
7-42	nok. alok	ziauzkunan	ziauzkinan
7-43 a	zuk. alok	ziauzkuzun	
7-43 b	xuk. alok		ziauzkitxun
7-44	zenizkiguten	zinauzkuyen	zinauzkien
7-45	zizkiguten	zauzkuyen	zauzkien
7-46	tok. alok	ziauzkuyekan	ziauzkiekan
7-47	nok. alok	ziauzkuyenan	ziauzkienan
7-48 a	zuk. alok	ziauzkuzien	
7-48 b	xuk. alok		ziauzkitx(i)en

adizki-zk.adibideak

- 7-25 a SK: arástian sáldu dauzkúzu
(Azkue: Arastian (R), hace poco tiempo, *il n'y a pas longtemps*. Hots, erronkariartzat jo zuen balizko asimilazioa aurkezten duen hitz hau)
- 7-25 b PA: xúk emán dauzkitxú
(Espartzan ere, xuketan, *dauzkitxu* edota *dauzkixu*)
- 7-26 CK: emán dauzkík sagárrak
PA: sáldu dauzkikán étseak túk pól(l)it
- 7-28 SK: apézak sáldu dauzki (adizkia laguntzaz emana)
PA: apézak emán dauzki
- 7-31 b JU: apézak sáldu diauzkítxu
- 7-32 PA: zék sáldu dauzkitzié étseak
(Pablok, 'zuek niri haiek' kasuan *daztazie* emanik ere -6-32 zk.ko erantzuna-, oraingo 'zuek guri haiek' honetan *dauzkitzie* erabili zuen)
- 7-33 SK: sáldu dáuzkie (adizkia laguntzaz emana)
PA: emán dauzkié
JU: aítá, giáudetxu kóntent, amigúek èman baitauzkié líbröak
- 7-34 CK: emán diauzkiék égun
PA: Severiano, aixkídiek, sáldu diauzkiék orái guziák
- 7-35 CK: emán diauzkíne (adizkia laguntzaz emana)
PA: Severa, aixkídiek saldú diauzkiné [-kiñé?] kotxé guziák
- 7-36 JU: sáldu diauzkítxe ètse guziák
- 7-37 b PA: sáldu xináuzkién guziák
(Espartzan ere honela)
- 7-38 CK: ik èman yauzkién átzo (adizkia laguntzaz emana)
PA: sáldu yauzkién
- 7-39 CK: sáldu yauzkién ánitx
PA: sáldu yauzkién
- 7-40 SK: sáldu zauzkin
PA: emán zauzkién ságar guziák
(Espartzan ere *zauzkien*, 'haiek guri haiek' kasuan bezala)
- 7-41 PA: sáldu ziauzkián guziák
- 7-42 PA: sáldu ziauzkinán
CK: emán zauzkínan guziák
(Pablolen erantzunak osoagoa dirudi Carmelorenak baino)

- 7-44 PA: zék sáldu zinauzkién
(Espartzan ere honela)
- 7-45 PA: emán zauzkién
(Espartzan ere berdin)
- 7-46 PA: Severiano, átzo, aixkíd(i)ek, sàldu z(i)auzkiekán etsé guziák
CK: emán zauzkiekán xúriak
- 7-47 PA: Severa, átzo aixkídek sàldu z(i)auzkienán etsé guziák
(Pabloren azken bi adibideetako tarteko *-i-* horiek ez dira ia aditzen)
- 7-48 b PA: sáldu ziauzkitxién
JU: sáldu ziauzkítxen
SK: sáldu zauzkitxién

Taula 8

Aditz laguntzaile iragankorra (nor-nori-nork - 'nik... zuri -edo xuri-'):
8-01 - 8-12, orainaldiko singularra; 8-13 - 8-24, iraganaldiko singularra

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93	adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
8-01 a	dizut	dauzut		8-13 a	nizun	nauzun	
8-01 b	id. (xuka)		dauxut	8-13 b	id. (xuka)		nauxun
8-02	id. (toka)	dabat	dabat	8-14	id. (toka)	naukan	naukan, naukikan
8-03	id. (noka)	daunat	daunat	8-15	id. (noka)	naunan	naunan
8-04 a	dizu	dauzu		8-16 a	zizun	zauzun	
8-04 b	id. (xuka)		dauxu	8-16 b	id. (xuka)		zauzun
8-05	id. (toka)	dauk	dauk	8-17	id. (toka)	zaukan	zaukan, zaukikan
8-06	id. (noka)	daun	daun	8-18	id. (noka)	zaunan	zaunan
8-07 a	dizugu	dauzugu		8-19 a	genizun	ginauzun	
8-07 b	id. (xuka)		dauxugu	8-19 b	id. (xuka)		ginauxun
8-08	id. (toka)	dabagu	dabagu	8-20	id. (toka)	ginaukan	ginaukan
8-09	id. (noka)	daunagu	daunagu(n)	8-21	id. (noka)	ginaunan	ginaunan
8-10 a	dizute	dauzie		8-22 a	zizuten	zauzien	
8-10 b	id. (xuka)		dauxie	8-22 b	id. (xuka)		zauzien
8-11	id. (toka)	dabek	da(u)be, dabae	8-23	id. (toka)	zayekan	zaben, zauk(a)en
8-12	id. (noka)	daben	daune, dabane	8-24	id. (noka)	zayenan	zaunen

adizki-zk.

- 8-01 a SK: ník emán dauzut zúri pelótara
JU: eztozút (...) erràn... ez-ez
- 8-01 b PA: sáldu dauxút
JU: zàrratrakéria xardókitzen dauxút
(*zarratapedia* aditzen ote den dirudi, baina andere Columbak argitzen digunez, *zarratrakeria* da hori, ezertarako balio ez duen zerbait, alegia)
JU: ez-ez...(ez)toxút erran
(*au* diptongoaren eta *o*-ren arteko lehia dela eta, Javierak, 3-21 zk.ko adibideetan, *nauken* eman zuen arren –adibide horietan Pablok *no-ken-*, oraingo honetarako *dauxut* eta *doxut*, biak eman zituen)
- 8-02 CK: ník emán dabát orái bérian sagárra
(*bérian* horrek azentua non daraman ikusita *ia* diptongoa gauzatzea harrigarria ez bada ere, Carmelok berak, 4-14 eta 4-15 zk.ko erantzutetan, bietan, *kótxean* eman zuen, hitzaren bukaera diptongatu gabe; alabaina, 4-32 zk.ko esaldian, oraingo kasu honetan ez bezala, *berían* eman zuen, zaraitzueraren azentuera, behin baino gehiagotan esan dugun moduan, oso finkaturik ez dagoen seinale)
PA: erran dabát ápezak ikúsi nintzála átzo
(*au* + *a* = *aba* dugu mintzamolde honetako hitz askotan; izan ere, taula honetako adibideetan *dabat*, *dabagu*, *dabae*... gisako emaitzak izateaz gainera, 3-32 zk.ko adibideetan ere *abaltzen* [= 'afaltzen'] ageri zai-

- gu, alde batetik –*aubari* aditurik baikaude behe-nafarreraren esparruko zenbait lekutan–, eta *gabaz*⁵ bestetik)
- 8-03 CK: ník emán daunát
- 8-04 a SK: anáiak eré éman dauzú
- 8-04 b PA: sáldu dauxú
- 8-07 a SK: gúk eré éman dáu zugú
- 8-07 b PA: sáldu dauxugú
- 8-08 CK: emán dabagú
- PA: sáldu dabágu
- 8-09 CK: emán daunagú
- PA: sáldu daunágún
- 8-10 a SK: askáziek eré éman dáu zie
- 8-10 b PA: sáldu dauxié
- 8-11 PA: aurrídiek sáldu daubé
- PA: ánaiek sáldu dabé
- PA: sáldu dabáe
(hiru era desberdin eman zuen Pablok oraingoan)
- CK: emán dabié
(Carmelok adizki hau, bitan, berdin eman zuen)
- 8-12 CK: erósi dauné íri étxea
- PA: sáldu dáune
- PA: sáldu dabáne
- 8-13 a SK: erósi nauzún
- 8-13 b PA: sáldu nauzún
- 8-16 a SK: emán zauzún
- 8-16 b PA: sáldu zauzún
- 8-17 CK: emán zaukán / emán zaukikán
(Carmelok, lehenik, bi erantzun hauetatik bigarrena eman zuenez, galdetu genion: – eta ‘eman zaukan?’ – *obéki diók* hark orduan)
- 8-18 CK: emán zaunán
- 8-19 a SK: emán gináuzun (adizkia laguntzaz emana)
- PA: sáldu ginauzún
- 8-19 b PA: emán ginauxún xúri
- 8-22 a SK: emán zauzién
- 8-22 b PA: sáldu zauzién
- JU: sáldu zaux(i)én
- 8-23 PA: emán zabén
- PA: sáldu zaukaén
- JU: sáldu zaukaén
- PA: fan dén úrtian aixkídiék sáldu zaukén
(hots, oraingoan ere lehengo informatzaile berak hiru era desberdin)
- 8-24 PA: sáldu zaunén
- JU: sáldu zaunén

⁵ Bonaparteren *Le cantique des trois jeunes gens dans la fournaise* izenburuko lanean, baina, *gauac* eta *egunac* ageri da, zaraitzueraz.

8-25 - 8-36, orainaldiko plurala; 8-37 - 8-48, iraganaldiko plurala

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
8-25 a	dizkizut	dauzkizut	
8-25 b	id. (xuka)		dauzki(t)xut
8-26	id. (toka)	dauzkiat	dauzkiat
8-27	id. (noka)	dauzkinat	dauzkinat
8-28 a	dizkizu	dauzkizu	
8-28 b	id. (xuka)		dauzki(t)xu
8-29	id. (toka)	dauzkik	dauzkik
8-30	id. (noka)	dauzkin	dauzkin
8-31 a	dizkizugu	dauzkizugu	
8-31 b	id. (xuka)		dauzki(t)xugu
8-32	id. (toka)	dauzkiagu	dauzkiagu(k)
8-33	id. (noka)	dauzkinau	dauzkinagun
8-34 a	dizkizute	dauzkizite	
8-34 b	id. (xuka)		dauzki(t)x(i)e
8-35	id. (toka)	dauzkitek	dauzkiek(k)
8-36	id. (noka)	dauzkiten	dauzkine

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
8-37 a	nizkizun	nauzkizun	
8-37 b	id. (xuka)		nauzki(t)xun
8-38	id. (toka)	nauzkan	nauzkikan
8-39	id. (noka)	nauzkinan	nauzkinan
8-40 a	zizkizun	zauzkizun	
8-40 b	id. (xuka)		zauzki(t)xun
8-41	id. (toka)	zauzkan	zauzkikan
8-42	id. (noka)	zauzkinan	zauzkinan
8-43 a	genizkizun	ginauzkizun	
8-43 b	id. (xuka)		ginauzki(t)xun
8-44	id. (toka)	ginauzkan	ginauzkikan
8-45	id. (noka)	ginauzkinan	ginauzkinan
8-46 a	zizkizuten	zauzkizien	
8-46 b	id. (xuka)		zauzki(t)x(i)en
8-47	id. (toka)	zauzkiyekan	zauzkiekan
8-48	id. (noka)	zauzkiyen	zauzkiyen

adizki-zk.

- 8-25 a SK: emán dauzkizút pelóta guziák (adizkia laguntzaz emana)
 8-25 b PA: sáldu dauzkitxút
 (adizki hauen bukaeratzat *-txut* eta *-xut*, biak adi daitezke, tauletan ageri bezala⁶)
 8-37 a PA: sáldu nauzkizún
 8-37 b SK: átzo zúri sáldu nauzkitxún (adizkia laguntzaz emana)
 (kasu honetan ere, lehenagoko beste adibideren batean ikusi bezala, izenordea zuketan eta adizkia xuketan dugu)
 PA: sáldu nauzki(t)xún
 8-43 a PA: sáldu ginauzkizún
 8-43 b PA: emán ginauzkitsún (adizkia laguntzaz emana)
 (honela aditu uste izan genuen adizkiaren bukaera kasu honetan: *-tsun*)
 8-44 PA: erósi ginauzkikán
 (aurrenik *átzo erósi gintzakán tre étse guziák* eman zuen Pablok)

adibideak

Taula 9

Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork* - 'nik... zuei'): 9-01 - 9-04, orainaldiko singularra; 9-05 - 9-08, iraganaldiko singularra; 9-09 - 9-12, orainaldiko plurala; 9-13 - 9-16, iraganaldiko plurala.

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
9-01	dizuet	dauziet	dauziet
9-02	dizue	dauzie	dauzie
9-03	dizuegu	dauziegu	dauziegu
9-04	dizue	dauzie	dauzie
9-05	nizuen	nauzien	nauzien
9-06	zizuen	zauzien	zauzien
9-07	genizuen	ginauzien	ginauzien
9-08	zizueten	zauzien	zauzien

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
9-09	dizkizuet	dauzkiziet	dauzki(t)ziet
9-10	dizkizue	dauzkizie	dauzkizie
9-11	dizkizuegu	dauzkiziegu	dauzkiziegu
9-12	dizkizue	dauzkizie	dauzkizie
9-13	nizkizuen	nauzkizien	nauzkizien
9-14	zizkizuen	zauzkizien	zauzki(t)zien
9-15	genizkizuen	ginauzkizien	ginauzkizien
9-16	zizkizueten	zauzkizien	zauzkizien

⁶ Samperren denboretan ere gisa bereko zalantzak bide zituzten, zuketan idatzi Eaurtako dotrinan *-zut* eta *-tzut* gisako bukaerak irakur baitaitezke: *zointan zure honra eta gloriataco ofrecitendauzquizut nore (...)* *guciac*, alde batetik, eta *nic ematendauzquitzut graciac, ene Jangoicoa*, bestetik. Itzallekoan, berriaz, *-zut* dugu: *ofrecizen dauzquizut Jauna niaure vici, obra, trabaju guziac*.

adizki-zk.

- 9-01 CK: sáldu dauziét zér étxëa
 9-05 CK: emán nauzién sagár bána, sagár bát sólo
 9-09 CK: sáldu dauzki(t)ziét zér
 (kasu honetan *z(i)er* aditu uste izan genuen datua, eskuz, hartu genuenean; orain, baina, hori zalantzan jartzeko modukoa iruditzen zaigu, gainerako emaitzak ikusita)
 9-13 CK: ník eré emán nauzkizién zér
 9-15 PA: erósi gináuzkizién
 (Carmelok, kasu honetarako, *emán ginauzkién* emana zuenez luzatu genion galdera Pablori, honek erantzun egokia emanetz)

adibideak

Taula 10

Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork* - 'nik... hari'):

10-01 - 10-20, orainaldiko singularra; 10-21 - 10-40, iraganaldiko singularra

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
10-01	diot	dakot	dakot
10-02	tok. alok	diakoat	diakoat
10-03	nok. alok	diakonat	diakonat
10-04 a	zuk. alok	diakozut	
10-04 b	xuk. alok		diakoxut
10-05 a	diozu	dakozu	
10-05 b	id. (xuka)		dakoxu
10-06	diok	dakok	dakok
10-07	dion	dakon	dakon
10-08	dio	dako	dako
10-09	tok. alok	diakok	diakok
10-10	nok. alok	diakon	diakon
10-11 a	zuk. alok	diakozu	
10-11 b	xuk. alok		diakoxu
10-12	diogu	dakogu	dakogu
10-13	tok. alok	diakoagu	diakoaguk
10-14	nok. alok	diakonagu	diakonagun
10-15 a	zuk. alok	diakozugu	
10-15 b	xuk. alok		diakoxugu
10-16	diozue	dakozie	dakozie
10-17	diote	dakoye	dakoe
10-18	tok. alok	diakoyek	diakoeck
10-19	nok. alok	diakoyen	diakone
10-20 a	zuk. alok	diakozie	
10-20 b	xuk. alok		diakoxe
10-21	nion	nakon	nakon
10-22	tok. alok	niakokan	niakokan
10-23	nok. alok	niakonan	niakonan
10-24 a	zuk. alok	niakozun	
10-24 b	xuk. alok		niakoxun
10-25 a	zenion	zinakon	
10-25 b	id. (xuka)		xinakon
10-26	hion	akon	iakon
10-27	hion	akon	iakon, yakon
10-28	zion	zakon	zakon
10-29	tok. alok	ziakokan	ziakokan
10-30	nok. alok	ziakonan	ziakonan
10-31 a	zuk. alok	ziakozun	
10-31 b	xuk. alok		ziakoxun
10-32	genion	ginakon	ginakon
10-33	tok. alok	giniakokan	giniakokan
10-34	nok. alok	giniakonan	giniakonan
10-35 a	zuk. alok	giniakozun	
10-35 b	xuk. alok		giniakoxun
10-36	zenioten	zinakoyen	zinakoen
10-37	zioten	zakoyen	zakoen
10-38	tok. alok	ziakoyekan	ziakoeckan
10-39	nok. alok	ziakoyenan	ziakoenan
10-40 a	zuk. alok	ziakozien	
10-40 b	xuk. alok		ziakoxen

adizki-zk.

- 10-01 SK: eman dakót emázte kórri ságarra
 CK: ník ságarra emán dakoténa apézari iuén ónik
 10-02 CK: emán diakoát sagár bat
 10-04 b PA: sáldu diakoxut
 SK: emán dakoxút
 (lehenago esan den moduan, xukako alokutiboak ematean Salvadorek ez zuen, Pablori eta Javierak bezala, *i*-aren tartekapena kontuan hartzen, honela eman baitzituen erantzunak: *dakoxut*, *dakoxu*, *dakoxuu* eta *dakoxe* –orainaldian–, eta *nakoxun*, *zakoxun*, *ginakoxun* eta *zakoxen* –iraganaldian–, pluraleko adizkiekin ere gisa berean jokatuz)
 10-05 a CK: zúk emán dakozú
 10-05 b PA: emán dakoxú
 10-08 CK: áitak emán dakón ságarra...
 SK: ságarr emán dakóna dá ónik

adibideak

- (esaldi erlatiboak dira hauek biak, egitura desberdinekoak izan arren eta aurrenekoa bukatu gabe geratu bazen ere)
- 10-11 b PA: sáldu diakoxú
SK: emán dakóxu
- 10-12 CK: gúk erràten dakógu... áutxa
SK: egózten dakogú, kan, zér bat, líkido bát... guzítik eta...
(*dakagu* aditzen ote den gaude)
PA: sáldu dakógu
CK: gúk emán dakogún sagárra iuén onik
- 10-15 b PA: sáldu diakoxúgu
SK: gúk eman dakoxúu
- 10-16 CK: emán dakozié
PA: sáldu dakózie
- 10-17 CK: gratifikatzen dakoé... zérbait, kontèntágo egon dádien apéza!
(Carmelok berak, beste une batzuetan, subjuntiboko adizki honen aldaera pare bat eskaini zuen: *txuka dadin* eta *eztaen gogor*, alegia; iraganaldian *elki zadien* eman zuen eta, iragankorrean, *berex zezaen* -'haiek', noski-)
CK: géro, zenbrúnaren eitéko, egózten dakoé gaxúra erràten báitakoé, gaxúra
SK: t'án... nóla ártzen dakoé...?
PA: sáldu dakoé
CK: ta caserío bat badágo kán, erràten báitakoé Ripálda
CK: badágo mendi bát erràten báitakoé... Óri
CK: emán dakoéna eré iuén ónik
CK: badágo gauzá bat, billúrria erràten dakoté
(Azkue: *Billurri* (BN-s), *bilurri-mataza* (BN-s), vilorta, aro hecho con una vara de madera flexible y que, según los casos, sirve para anilla o para vencejo : *anneau fait d'une branche verte tordue, qui sert à divers usages, comme d'anneau, de lien*. Carmelok erantsi zuen: *billúrria... andáitzëan, bai*, [gazt. 'en la lanza del arado'] *andáitzeari apégatrik*. Esaldiaren bukaerako *dakote* hitzak, bestalde, Aezkoatik eragina erakusten du, Zaraitzuko era arrunta 'dakoe' baita)
CK: áutxak erràten báitakoré (sic), áutxak; uskáraz, erràten dakoé, áutxa
- 10-20 b PA: sáldu diakoxé
SK: aíxkideek eré emán dakóxe
- 10-21 JK: ník eman nakón⁷ sémëari... etséa ta fínka ta déna, guziák
(aditza pluralizatu gabe emana, hasieran *etsea* erreferentzia nagusia iza-tegatik, agian)
SK: emán nakón emàzte kári ságarra
PA: eta errán nakon:
CK: ník emán nakónara eré báita eré
(ez dugu ikusten oraingoan zergatik erabili zuen Carmelok zaraitzue-raz -a organizkoz bukatzen diren hitzak mugatzeko erabili ohi den -ra osagarria)
- 10-24 b PA: sáldu niakoxún
SK: ník eré emán nakóxon

⁷ N. Alzolak argitara emaniko *Una carta de D. Pedro José Samper...* delakoan, ordea, *nekon* dugu: *Zure Altezarari* (sic) *erraneconabezela nic*, eta, gure egunetara etorri, Orontze herrian *nekon* horixe bildu genion behin Severo Azkoiti jaunari, esaldi luzexka baten testuinguruan. Bi aldiz gainera.

- 10-25 a CK: zúk emán zinakóna eré...
- 10-25 b SK: xúk eré emán xinákón
PA: xúk emán xinakón
- 10-26 CK: ík eré emán iakon
PA: emán iákon
- 10-27 CK: sagárta emán iakón
PA: emán yakón
- 10-28 SK: áitak emán zakón⁸
CK: emán zakóna...
- 10-31 b PA: sáldu ziaxóxon
SK: áitak emán zakóxon
- 10-32 CK: kantátu ginakón apézari
CK: emán ginakóna...
- 10-35 b PA: sáldu giniakoxún
JU: pues artsáldian, géntzen giniakoxún lemizíko (...) làstöá,
kentzén (sic) giniakoxún
(*kentzen* hitza 'sic' batez lagundu dugu, zaraitzueraz, hori baino gehia-
gotan *gentzen* aditzen delako; 3-77 zk.ko adibide batean, halaber, *ka-
rretilla* erdal hitza *garretilla* haren aldaerarekin batera dugu, eta 3-02
delakoan, gazteleratik hartuta hau ere, *gultibatze*ko moduko hitza,
hauek guztiek, itxuraz, leherkari gor eta ozenen arteko lehia erakusten
dutela)
- SK: emán ginakoxún
- 10-36 CK: emán zinakoén
PA: sáldu zinakoén
- 10-37 CK: t'emán zakoén⁹ pisú kau
CK: ta... naúsíak, bèar zákoen emán xátra
CK: ta kán, egìn zutén... zubú bat, ta eséri zakoén no(n)bría...
Sòrgin-zúbü
(kasu honetan ere *zubü* horren *ü*-a argiro aditzen da¹⁰)
CK: ta Aríben, egùtxakoén [= 'egotzi zakoén'] áltóa
(gehienetan *egotz* aditu baldin badugu ere, *egutx* horrek gaztelerazko
'la (hora) una' aditzera emateko Izaban aspaldi bildu genuen *oren bá-
kutxa* oroitarazten digu, Uztarrozen *òren bákotxa* eta *òren bákutxa*,
biak, aditurik gaudela; lan honetan zehar *o* eta *u* bokalen arteko beste
zenbait zalantza ikusi ahal izan da)
- CK: ta... bérze, bazágon bérze... apèro bát, erráten baizako-
én... ariára
CK: t'elkitzén zuén... zénbrúna, erráten báitzakoé(n)

⁸ Eaurtako XIX. mendeko zein XX.eko bukaera aldeko iraganaldiko era hauetako barne-huna *-ako-* baldin badugu ere, Samp(eban)ek, adizki laguntzaile hauek erabiltzean, *-ako-* eta *-eko-*, bi aldaerak erabili zituen; hots: *baizic ere fancinuen eta sarrharacizun carcelean pagazon bitarteo zorrzacona* (18-30), alde batetik, eta *onquitenceccolaric escua* (8-14), *ernatenceconari* (12-48), edota *ofrecitubaitzecon* (14-7), bestetik. Erabilera bikoiti hau ez bide zen ezezaguna ibarreko gainerako herrietan, ez behintzat Orontzen eta Itzallen, honako kasuak lekuko: *bere propio virtutez iñore laguníc eguiten cecola* (Orontze), edota *cer erranzecon?* (Itzalle), adibidez. Aezkoan ere, Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental* izenburuko lanean ikus daitekeenez, iraganaldiko *-eko* bukaeradun adizkiak arruntak dira –Garaioa eta Abaurregaina herrietan, agian, bereziki–, hauek baino hedatuagoak *-ako* gisako erak baldin badaude ere.

⁹ Eaurta honi dagokionez, koadroetan islatu bezala, 1872ko datuetan *zakoyen* dugu, eta 1989-93koetan *zakoén*. Gainerako gure datuei behatu bat eman eta, Otsagin eta Ezpartzan *zakoien* eta *zakoén*, biak ikusten ditugu; Ezkarozen *zakoén* bakarrik.

¹⁰ Uztarrozen, oroitarazten dugu, *zubu* aditurik gaude: *baía órai, zubùtik, buéltatan dzu proze-
sion(e)a, góradráino*, era mugatua *zubía* izanik ere. *Fidela Bernat...* (II), 493. or.

(hona, arestian adierazi bezala, *o* eta *u* bokalen arteko lehiaren beste adibide bat, Azkuek, bere hiztegian, **zenbron** (BN?) baitakar: *requesón, fromage blanc*, Var. de ZENBERA. Guk geure aldetik azken era hau aditu dugu Uztarrozen, laburbildurik bada ere: *Zenbrá géro egítan zeia bérz batan*¹¹)

CK: len... erráten zakotén... kárroa

CK: etxéko márkará... esértzen zakotén [ardiari]... étsearén nónbrëa: Lorenzéna; l(è)é bát, Luorenzéna (sic)

(Carmelok, antza denez, *l(è)é* horren bidez L bat esan nahi izan zuen; hortik kanpora, azken bi esaldietako adizkiaren bukaera dela eta, aezkeraren eraginari buruz lehenxeago esanikoa errepikatu beharrean gara, honek iraganaldiko kasuetan galdu ohi duen *n*-aren zertzelada kontuan izanik, jakina)

10-40 b PA: sáldu ziaxóxen

SK: askáziek eré emán zakóxen

10-41 - 10-60, orainaldiko plurala; 10-61 - 10-80, iraganaldiko plurala

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
10-41	dizkiot	dazkot	dazkot
10-42	tok. alok	diazkoat	diazkoat
10-43	nok. alok	diazkonat	diazkonat
10-44 a	zuk. alok	diazkozut	
10-44 b	xuk. alok		diazkotxut
10-45 a	dizkiozu	dazkozu	
10-45 b	id. (xuka)		dazkotxu
10-46	dizkiok	dazkok	dazkok
10-47	dizkion	dazkon	dazkon
10-48	dizkio	dazko	dazko
10-49	tok. alok	diazkok	diazkok
10-50	nok. alok	diazkon	diazkon
10-51 a	zuk. alok	diazkozu	
10-51 b	xuk. alok		diazkotxu
10-52	dizkiogu	dazkogu	dazko(g)u
10-53	tok. alok	diazkoagu	diazkoaguk
10-54	nok. alok	diazkonagu	diazkonagun
10-55 a	zuk. alok	diazkozugu	
10-55 b	xuk. alok		diazkotxugu
10-56	dizkiozue	dazkozie	dazko(t)zie
10-57	dizkiote	dazkoye	dazkoe
10-58	tok. alok	diazkoyek	diazkoek
10-59	nok. alok	diazkoyen	diazkone
10-60 a	zuk. alok	diazkozie	
10-60 b	xuk. alok		diazkotx(i)e

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
10-61	nizkion	nazkon	nazkon
10-62	tok. alok	niazkokan	niazkokan
10-63	nok. alok	niazkonan	niazkonan
10-64 a	zuk. alok	niazkozun	
10-64 b	xuk. alok		niazkotxun
10-65 a	zenizkion	zinazkon	
10-65 b	id. (xuka)		xinazkon
10-66	hizkion	azkon	iazkon
10-67	hizkion	azkon	iazkon
10-68	zizkion	zazkon	zazkon
10-69	tok. alok	ziazkokan	ziazkokan
10-70	nok. alok	ziazkonan	ziazkonan
10-71 a	zuk. alok	ziazkozun	
10-71 b	xuk. alok		ziazkotxun
10-72	genizkion	ginazkon	ginazkon
10-73	tok. alok	giniazkokan	giniazkokan
10-74	nok. alok	giniazkonan	giniazkonan
10-75 a	zuk. alok	giniazkozun	
10-75 b	xuk. alok		giniazkotxun
10-76	zenizkioten	zinazkoyen	zinazkoyen
10-77	zizkioten	zazkoyen	zazkoyen
10-78	tok. alok	ziazkoyekan	ziazkoyekan
10-79	nok. alok	ziazkoyenan	ziazkoyenan
10-80 a	zuk. alok	ziazkozien	
10-80 b	xuk. alok		ziazkotx(i)en

adizki-zk.

- 10-41 SK: emán dakót / emán dazkót (pluraleko adizkia laguntzaz emana)
PA: sáldu dazkót
- 10-52 PA: sáldu dazkogu
SK: emán dazkóu
- 10-56 CK: emán dazkozié
PA: sáldu dazkótzie
- 10-57 SK: emán dazkoé (adizkia laguntzaz emana)
PA: sáldu dazkoé
- 10-60 b PA: sáldu diazkótx(i)e

adibideak

¹¹ *Fidela Bernat... (II)*, 496. or.

- SK: emán dazkótxe
 10-61 SK: eman nazkón
 10-64 b PA: sáldu niazkótzun
 (-*txu(n)*) gisako bukaera hauek, batzuetan, -*tsu(n)* aditzen ote diren gaude)
 SK: emán nazkótzun
 10-65 b SK: xúk eré emán xinázkón
 PA: emán xinazkón
 10-68 SK: áitak eré emán zázkon
 PA: eta... belárre... náí zéxkon (sic) emán kári
 (10-28 zk.ko erantzunei egin iruzkinarekin bat, pluraleko kasuetan ere Samperrek -*azkon* eta -*ezkon* zerabiltzan, XX. mendearen bukaera aldean, Pablok adibide honetan emanikoa izan ezik, batere arrunta izan ez dena¹²)
 10-70 JU: áitari ta amarí ètse guziák saldú ziazkónan
 (adizki hau ‘hark hari haiek’ honetarako baliagarria izateagatik idatzi dugu hemen, baina Javierak halakoa ‘hark haiei haiek’ gisako bat bihurtu zuenez, *ziaztenan* itxaron behar genukeen, inkestak aurrera egin ahala Javierak berak -11-70 zk.ko adibidea- eman bezala)
 10-71 b PA: sáldu ziazkotsún
 (adizkiaren bukaera horrela aditu uste izan genuen aldi honetan ere, bederen)
 SK: emán zazkótzun
 10-72 SK: gúk eré emán ginázkón
 10-77 CK. esértzen zazkoén... nazimiéntoko Aurrarí
 SK: aixkideék eré emán zazkoén

Taula 11

Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork* - ‘nik... haiei’): 11-01 - 11-20, orainaldiko singularra; 11-21 - 11-40, iraganaldiko singularra

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93	adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
11-01	diét	dabet	dabet	11-21	nien	naben	naben
11-02	tok. alok	diabeat	diabeat, diabiát	11-22	tok. alok	niabekan	niabekan
11-03	nok. alok	diabenat	diabenat	11-23	nok. alok	niabenan	niabenan
11-04 a	zuk. alok	diabezut		11-24 a	zuk. alok	niabezun	
11-04 b	xuk. alok		diabexut	11-24 b	xuk. alok		niabexun
11-05 a	diezu	dabezu		11-25 a	zenien	zinaben	
11-05 b	id. (xuka)		dabexu	11-25 b	id. (xuka)		xinaben
11-06	diek	dabek	dabek	11-26	hien	aben	iaben, yaben
11-07	dien	daben	daben	11-27	hien	aben	iaben
11-08	die	dabe	dabe	11-28	zien	zaben	zaben
11-09	tok. alok	diabek	diabek	11-29	tok. alok	ziabekan	ziabekan
11-10	nok. alok	diaben	diaben	11-30	nok. alok	ziabenan	ziabenan
11-11 a	zuk. alok	diabezu		11-31 a	zuk. alok	ziabezun	
11-11 b	xuk. alok		diabexu	11-31 b	xuk. alok		ziabexun
11-12	diegu	dabegu	dabegu	11-32	genien	ginaben	ginaben
11-13	tok. alok	diabeagu	diabeguk, diabi-	11-33	tok. alok	giniabekan	giniabekan
11-14	nok. alok	diabenagu	diabenagun	11-34	nok. alok	giniabenan	giniabenan
11-15 a	zuk. alok	diabezugu		11-35 a	zuk. alok	giniabezun	
11-15 b	xuk. alok		diabexugu	11-35 b	xuk. alok		giniabexun
11-16	diezue	dabezie	dabezie	11-36	zenieten	zinaben	zinaben
11-17	diète	dabe	dabe	11-37	zieten	zaben	zaben
11-18	tok. alok	diabek	diabek	11-38	tok. alok	ziabekan	ziabekan
11-19	nok. alok	diaben	diaben	11-39	nok. alok	ziabenan	ziabenan
11-20 a	zuk. alok	diabezu		11-40 a	zuk. alok	ziabezun	
11-20 b	xuk. alok		diabexu	11-40 b	xuk. alok		ziabexun

¹² Hona, Samp(eban)ek idatzirikoetan, adibide pare bat: *encontraticizun bere lagunetarik bat zoin-nec baitzatzcon* (sic) *zorr egun denario* (18-28), alde batetik, baina *izancitziuzun presentatric bat zoin-nec zorbaitezcon amar mila talentu* (18-24), bestetik. Mitxelena *Un catecismo...* delakoan ere, dena den, badugu orobat bigarren honetakorik: *eta Jangoicoac Eliza Ama Sanduari revelatuzezconac*.

adizki-zk.adibideak

- 11-01 SK: ník sáldu dabét
CK: ní kontént niók sáldu baitabét koér étxea
JU: étsea, sáldu dabétena aìxkidér dúk ániz pollit
- 11-02 CK: sáldu diabiát, sáldu diabéát
- 11-03 CK: ník sáldu diabenát koér étxea
- 11-04 b PA: sáldu diabexút
SK: sáldu dabéxut emázte koer
- 11-05 a SK: zúk eré sáldu dabézu
- 11-05 b SK: xuk... sáldu dabéxu
JU: zúk ere sáldu dabéxú étsea goér?
(lehenagoko beste zenbait adibidetan ere ikusi legez, inoiz izenordeak eta aditzak –zuketan batzuk, xuketan besteak– nahasirik kausitzen ditugu)
JU: xúk eré sáldu deabexú, xaldú dabexú étseä goér? saldú dabéxu, étzia, oér?
(*dabexu* –zuzeneko era– egokiagoa iruditzen zaigu *diabexu*-ra hurbiltzen den *deabexu* hori baino)
- 11-08 SK: áitak eré sáldu dabé
CK: ... sáldu baitabé
(‘hark haiei hura’ eta ‘haiek haiei hura’ kasuetako indefinitu eta alokutiboetan emaitza berberak ditugu, eta hau hala singular-pluraletan nola orainaldi-iraganaldietan ere)
- 11-11 PA: sáldu diabéxu
SK: sáldu dabéxu
- 11-12 CK: gúk erràten dabegú... áutxa; etá franzésa
CK: ... sáldu baitabegú oér étxea
- 11-15 b PA: sáldu diabéxugu
SK: sáldu dabéxuu
- 11-17 SK: sáldu dabé
CK: kóntent diaudék sáldu baitabé koér étxea
- 11-20 PA: sáldu diabéxu
SK: sáldu dabéxu
(‘haiek haiei hura’ honetan, **diabexie* batere gabe, *diabexu* dugu, ‘hark haiei hura’ kasuan bezala, eta bateratasun hauek berdin ditugu singularrarekin zein pluralarekin, eta orainaldian zein iraganaldian, ‘hark hari hura’ eta ‘haiek hari hura’ kasuetan ditugun erak ongi bereizten badira ere. Espartzan, dena den, gauza bera dugu, agian oso logikoa ez izan arren, baina kontuan hartu beharrekoa da Zuberoan bildu ditugun inkesteran ere jokaera hauxe ia erabatekoa izan dena)
- 11-21 SK: sáldu náben etxea
- 11-25 b SK: xúk eré sáldu xináben (adizkia laguntzaz emana)
(Espartzan ere honela)
- 11-26 CK: emán yabén atzó sagárra
- 11-27 CK: sáldu iabén
- 11-28 CK: nausíak beár zabén emán xátra
SK: sáldu záben
- 11-32 SK: sáldu gináben
- 11-35 b PA: sáldu giniabéxun
JU: ez gínia(b)exún kantátzen éz aurrèr, bàizik ére... títia emán eta... àlorréala!

(*baizik ere* hau bai, hainbat lekutako *baizik eta* ezagunaren parekoa iruditzen zaigu)

11-36 SK: sáldu ginabéxun

CK: emán zinabén

SK: sáldu zináben

(hots, 'zuk haiei hura' eta 'zuek haiei hura' kasuetan emaitza bera dugu, bietarik aurrenekoa, xuka erabiliz gero, bigarrenetik ongi bereizten bada ere. Pluralean ere gauza bera dugu)

11-41 - 11-60, orainaldiko plurala; 11-61 - 11-80, iraganaldiko plurala.

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
11-41	dizkiet	dauzet	daztet
11-42	tok. alok	diauzteat	diaztiat
11-43	nok. alok	diauztenat	diaztenat
11-44 a	zuk. alok	diauztezut	
11-44 b	xuk. alok		diaztezut
11-45 a	dizkiezu id. (xuka)	dauztezu	daztezu
11-45 b			daztezu
11-46	dizkiek	dauztek	daztek
11-47	dizkien	dauzten	dazten
11-48	dizkie	dauzte	dazte
11-49	tok. alok	diauztek	diaztek
11-50	nok. alok	diauzten	diazten
11-51 a	zuk. alok	diauztezu	
11-51 b	xuk. alok		diaztezu
11-52	dizkiegu	dauztegu	daztegu
11-53	tok. alok	diauzteagu	diaztiaguk
11-54	nok. alok	diauztenagu	diaztenagun
11-55 a	zuk. alok	diauztezu	
11-55 b	xuk. alok		diaztezu
11-56	dizkiezue	dauztezie	daztezie
11-57	dizkiete	dauzte	dazte
11-58	tok. alok	diauztek	diaztek
11-59	nok. alok	diauzten	diazten
11-60 a	zuk. alok	diauztezu	
11-60 b	xuk. alok		diaztezu

adizki -zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
11-61	nizkien	nazten	nazten
11-62	tok. alok	niaztekan	niaztekan
11-63	nok. alok	niaztenan	niaztenan
11-64 a	zuk. alok	niaztezun	
11-64 b	xuk. alok		niaztezun
11-65 a	zenizkien id. (xuka)	zinazten	xinazten
11-65 b			xinazten
11-66	hizkien	azten	iazten, yazten
11-67	hizkien	azten	iazten, yazten
11-68	zizkien	zazten	zazten
11-69	tok. alok	ziaztekan	ziaztekan
11-70	nok. alok	ziaztenan	ziaztenan
11-71 a	zuk. alok	ziaztezun	
11-71 b	xuk. alok		ziaztezun
11-72	genizkien	ginazten	ginazten
11-73	tok. alok	giniaztekan	giniaztekan
11-74	nok. alok	giniaztenan	giniaztenan
11-75 a	zuk. alok	giniaztezun	
11-75 b	xuk. alok		giniaztezun
11-76	zenizkieten	zinazten	zinazten
11-77	zizkieten	zazten	zazten
11-78	tok. alok	ziaztekan	ziaztekan
11-79	nok. alok	ziaztenan	ziaztenan
11-80 a	zuk. alok	ziaztezun	
11-80 b	xuk. alok		ziaztezun

adizki-zk.

- 11-41 JU: ník sáldu daztét¹³, aítatamér, etséák
 JU: nióxu kóntent, porque emán baitáztet áítatámer ságar gú-ziak
 SK: ník emán dabét ságar guziák
 (pluralizatu gabeko erantzuna dugu Salvadorren hau, *daztet* beharko baitzukeen, antza¹⁴)
- 11-42 CK: eman diaztiát
 (honen jarraiko adibidearekin –nokakoarekin– parekatuz gero, aldi honetan Carmelok adizkia diptongatu zuela ikusten da, *diazteat* itxaron baitzitekeen)
- 11-43 CK: sáldu diazténat lúrrak koér
- 11-44 b JU: sáldu diaztéxut

adibideak

¹³ Pluraleko emaitza hauek agerian ezartzen dutenez, XIX. mendean bildu orainaldiko adizkiek *-au-* dute barne-hun *-dauzet, dauztezu, dauzte...*, XX.eko bukaera aldekoek *-a-* duten bitartean *-daztet, daztezu, dazte...*. XIX eta XX. mendeetako iraganaldiko adizki guztiek, halere, *-a-* dute, bakarrik, barne-hun.

¹⁴ Honela, bederen, XX. mendearen bukaera aldeko gainerako informatzaileek eman zutena ikusita: *daztet, daztezu, dazte...*; izan ere, Bonapartek 1872an argitara emaniko sail honetako erak *dauzet, dauztezu, dauzte...* gisakoak izan baitziren, *u* bat tartekaturik.

(azken Taula honetako pluraleko indefinituak eta xukako alokutiboak ongien asmatu zituen Javier Urralburu izan zen. Xukako alokutiboen bukaerak direla eta, zera galdetu genion: ‘nik haiei *eman diaztexut* edo *eman diaztetxut?*’ eta hark ‘*diaztetxut* me parece’ erantzun, baina ondorengo erantzun guztiak, banan-banan, orainaldikoak zein iraganaldikoak, *-xu(n)* bukaeradunak eman zituen. ‘Xuk’ eta ‘zuek’ kasuetarako ere, orainaldian, *daztexu* eta *daztezie* eman zuen, balizko *t* baten inolako tartekapenik gabe)

- 11-45 b JU: xúk saldú daztéxu étsëak oér?
JU: emàn daztéxu sàgar gúziak
- 11-48 JU: apézak eré, saldú dazté, étsëak, aítátamer
- 11-50 CK: áitak sáldu diaztén oér
- 11-51 b JU: apézak ere báí, sáldu diaztéxu
- 11-52 JU: sáldu daztégu, ètsiák...¹⁵
- 11-55 b JU: gúk ere sáldu diàztexugú
- 11-56 JU: zék sáldu daztezié eré, oér, étsiák (erantzun erakarria)
JU: zuék eré aítátamér emán daztezié, emán daztezié sàgár guziák (lagun batek berak –Javierak, kasu honetan– behin *zek* eta beste behin *zuek* erabili zuen)
- 11-57 JU: kanpóan daudén adixkidiék eré, saldú dazté... étsëak
- 11-60 b JU: kánpo daudén... adíxkide kóek... ère sáldu diaztéxu (‘hark hari’ kasuan –11-51-b zk.ko adibidea– eta ‘haiek haiei’ honetan emaitza bera dugu, azken honetarako, logikaz bederen, **diaztexie* itxaron beharko zela iruditzen bazaigu ere. Ez baina; XIX. mendean bildu datuetan ere bukaera bera dugu bi kasuetarako, aditza zertxobait aldatu ere: *diauztezu*, xuketan *diauztexu* izango genukeena)
- 11-61 SK: eman naztén
PA: sáldu naztén
JU: orái duéla tènbra anítz, saldú naztén étsëak, aítátamer
- 11-64 b JU: orái duéla bi úr(s)te, saldú niaztéxun ètse guziák... aítátamer
- 11-65 b JU: orái duéla bi urté, xúk eré saldú xinaztén étsëak
- 11-66 CK: sáldu yaztén
JU: Agapio, ík sàldu iaztén... étsëak aítátamer / sáldu iaztén, es... la frase
- 11-67 CK: sáldu yaztén (iaztén?)
- 11-68 SK: sáldu zasztén
JU: apézak eré sàldu zituén áítátamer; kála?... saldù zasztén, étsëak, aítátamer (erantzun erakarria, aurrenik era bipertsonala eman baitzuen)
- 11-69 JU: sáldu ziaztékan
- 11-70 JU: Raimunda, atzó, [hark] emàn ziaztenán... sàgar gúziak

¹⁵ Kasu honetarako ditugun adibideetan ere –11-41 zk.ko esaldi bati egin diogun oharraren haritik diogun hau–, batzuetan *-au-* eta besteetan *-a-* dugu pluraleko barne-huna, orainaldian. Honela, Eaurtako dotrinan, koadroetan bildurikoarekin bat, *cala nola guc parcazenbaitauztegu gu zorguitiener* gisako esaldia aurkitu dugu; Otsagikoan, *cala nola guc parcazen baitaztegu guri zorduiener*; Orontzekoan, *cala nola guc parcazen bai tauztegu guri zor guitiener*; Igarikoan, *cala nola guc parcazen baitrauztegu* (sic) *gu zorguitiener*; eta Itzallekoan, azkenik, *cala nola guc parcazen baitaztegu gu zorguitiener*. Mitxelenaren *Un catecismo salacenco* izenburuko lanean bestalde, Igarin bildu eratik besteetatik baino hurbilxeago agian, honako esaldiak irakur daitezke: *Parcadazaizcula gure zorrac*, *guc nola parcazen baitreztegu*, *gu zor guitiener*, alde batetik, eta *Jangoicoac parcadazaizcula guri becatuac*, *cala nola parcazen baitreztegu*, *gu agraviatu*, eta *gaizqui heguin dauzquiener*, bestetik, zeinetan erreparatu, agian, aspaldiko **derauztegu* bat susma litekeen.

- 11-71 b JU: orái duéla ténbr'anitz, apézak, sàldu ziaztexún...áitatamér étsëak
- 11-72 JU: gúk ére... saldú ginaztén, étsëa(k), áitatámer
- 11-73 JU: sàldu giniáztékan
CK: sàldu giñaztekán
(inoiz aipatu Abaurregaina auzo-herrian *giñaixteta* dugu bildurik¹⁶; litekeena da, beraz, *n*-ren bustiduran aezkeraren aldetiko kutsaduraren bat izatea)
- 11-74 JU: Raimunda, atzó... emàn giniaztenán... aítátamér sàgar gúziak
- 11-75 b JU: ta gúk ére, sàldu giniaztextún étsëak, áitatámer
- 11-76 SK: emán zinaztén
JU: zuék eré, orái duéla ténbra ánitz... sàldu zintzaén étsëak, áitatámer; (zuzenduz:) zuék eré, saldú zinaztén, etsëák, áitatámer
JU: zúek ére, átzo, áitatámer, emán... zinaztén sàgar gúziak
CK: sàldu ziñaztén
(kasu honetan ere *ziñaz-* aditu uste izan genion Carmelori, eta ez *zinaz-*)
- 11-77 JU: pues, ta adíxkidek eré sàldu zázten
- 11-78 JU: sàldu ziaztékan
- 11-79 JU: aizán R(e)imondá, atzó adixkidíek, èman ziaztenan sàgar gúziak... áitatámer
- 11-80 b JU: kanpóköek ére, sàldu ziaztexún àitatamér, étsiak
SK: sàldu zasztéxun

DATU BATZUEN ARTEKO ERKAKETA, ZENBAIT KASUTAN
NOR SAILEKO ADIZKI BATZUEK NOR-NORK GISAKO
BESTE BATZUK ORDEZKATZEN DITUZTELA

1) Bonapartek XIX. mendean Eaurtan bildu zituen datuen eta XX. mendean azken laurdenean Zaraitzuko aipatu bost herrietan jaso eta ezagutzen ditugunen artean.

Jarraiko koadroetan *nor-nork* gisako adizki batzuen ordezkariak XIX. menderako jada, era desegokian izanik ere, erabiltzen ziren *nor* batzuen ibilbide hazkorra islatzen saiatuko gara. Adizki ordezkariak letra etzan eta beltzean idatzi dira.

Lehenengo zutabearen saio honetarako aurkitu ditugun adizkiei dagozkien zenbakiak idatzi ditugu, lan honen aurreko bi zatietan –(1 - Eaurta: hasiera) eta (2 - Eaurta: jarraipena)– eman zaizkienekin bateratsu. Bigarrean, XIX. mendeko Bonaparteren Eaurtako adizkiak ageri dira, non, ikusi ahal izango denez, era desegokiak lau baizik ez ziren: *zintzan* –*nor* moduan, ‘ziren’ en zukako alokutibotzat–, alde batetik, eta *zintzan*, *gintzan* eta *zintzayen* –*nor-nork* saileko ‘zenituen’, ‘genituen’ eta ‘zenituzten’ moduko era egokiak ordezkatzeko zituztenak–, bestetik, objektu singularrarekin ordezkariak ematen ez zela. Eta hirugarrenetik aurrera, gure egunotan Eaurtan berean, Otsagin, Ezkarozen, Orontzen eta Espartzan bildu eta erkatze-lanerako hautatu ditugunak.

¹⁶ Aezkoako herri honetan bilduriko datuak Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental* izenburuko liburuan argitaratu ziren.

Adizki hauei zera erantsi diegu Otsagin: JE (José Estornés), bi aldiz, eta EI (Euskalerría Irratia), beste bi.

Emaitzek erakusten dutenez, era desegoki gehiago dugu orain XIX. mendean baino, artean kutsatu gabe bide zeuden beste zenbait adizkiri ere hedatu baitzaio, XX.ean zehar, joera oker hori¹⁷. Hona datuak:

adizki-zenbakia	Eaurta XIX (Bonap. 1872)	Eaurta (1989-93)	Otsagi (1975-98)	Ezkaroze (1976-80)	Orontze (1986-95)	Espartza (1976-92)
1-29 a 1-29 b	zinuen	zinuen xinuen xunen ¹⁸	xunen		xinuen	xinuen xunen
1-38 a 1-38 b	<i>zintzan</i>	<i>zintxan</i> <i>xintxan</i>	<i>xintxan</i>	<i>zintzan</i>	<i>xintxan</i>	<i>xintxan</i> txunen
3-21	nuen	nuen	nuen <i>nitzan</i>	nuen	nuen	nuen
3-25 a 3-25 b	zinuen	xinuen	zinuen zunen JE: xinuen			xinuen xunen
3-32	ginuen	gin(d)uen <i>gintzan</i>	gin(d)uen gitzuen <i>gi(n)tzan</i>	ginuen	ginuen	ginuen <i>gintzan</i>
3-35 a 3-35 b	ginizun	ginixun <i>gintzaxun</i>				ginixun
3-36	zinien	zinien	JE: zinien		zinien	zinien zinen ¹⁹
3-61	nituen	nituen	nituen <i>nintzan</i>	nituen	nituen	nituen <i>nintzan</i>
3-62	nitikan	nitikan <i>ni(n)tzakan</i>				nitikan
3-65 a 3-65 b	<i>zintzan</i>	<i>xintxan</i>	EI: zintuen			txunen
3-72	<i>gintzan</i>	<i>gintzan</i>	gi(n)tuen gi(n)tzuen <i>gintzan</i>		ginituen <i>gintzan</i>	<i>gintzan</i> ginitian
3-73	gintikan	gi(n)tikan <i>gintzakan</i>	EI: <i>gintzaka</i>			ginitian
3-74	gintinan	gi(n)tinan <i>gintzanan</i>				ginitinan
3-75 a 3-75 b	gintzun	gint(i)xun <i>gintzaxun</i>				ginitxun <i>gintzaxun</i>
3-76	<i>zintzayen</i>	<i>zintzaen</i>				tzinien

¹⁷ Dena den, XIX. mendean Eaurtan bildu adizkiek ezin bazter dezakete, besterik gabe, zenbait kasutan, agian, bestelako eraren batzuk ere indarrean egon zitezkeeneko hipotesia.

¹⁸ Era hau, 2000. urtean María Cruz Esarte andereak elkarrizketa batean emana, Aitor Aranaren *Zaraitzuko uskara* izeneko lanean ere agertzen da.

¹⁹ 'zinen' labur hau Lucas Senberoi z jaunak eman zigun: *sáldu zinen, etséa*.

IRUZKINAK

Lehenengo bi lerroetako 1-29 eta 1-38 zk.ko erak, adierazten luzexka joko lukeen arrazoiagatik, gerorako utziko ditugu. Hirugarren lerroko edukietatik abiatuko gara, beraz.

Hirugarren lerro honetako 3-21 zk.tik 3-36ra bitarteko adibideak singularreko kasuak dira. Lehen esan denez eta 'Eaurta XIX' zutabeko adibideei behatu bat emanez gero aise antzeman daitekeenez, singularreko adizki hauetan ez zen orduan era pertsonabakar hauen aldetiko inolako intromisorik ematen, baina iragan berri zaigun XX. mendearen bukaera aldean bildu ditugun materialetan joera hori singularreko kasuetara ere aski zabaldurik ikusi dugula esan behar, aurreko adibideek erakusten dutenez.

3-21 zk.: iruzkin honetan aztertzen ari garen bost herrietako laginak kontuan harturik, gaztelerazko '(yo) lo tenía' kasurako, adibidez, 'nuen' egoki bat bildu dugu bost herriotan, Otsagin, horrez gainera, 'nitzan' bildurik ere, itxura erreflexiboa edo antzeko zerbait darakusana.

3-25 zk.ko adibideetan ez dugu ordezkapenik aurkitu. Eaurtan, halere, XIX. mendean bildu zen *zinuen* ez baina, *xinuen*, xuketan, bildu dugu, eta Otsagin, bi era hauetaz gainera, *zunen* –orainaldiko *zu* era laburtutik erakarrria ote, hau?–, Espartzan ere, xuketan, eta *xinuen*-ekin batera, kausi deza-keguna. Geroxeago ageriko den koadroan –aspaldiko denboretan idatzi dotrinetan ikusi ditugun era hauetako datuak agerian ezartzeko berariaz eginna– *zunen* hauxe Orontzekoan aurkituko dugu. Zertzelada hau nabarmentzeko modukoa dela iruditzen zaigu, 'zuek' kasurako datuak bildu ditugun herrietan, Espartza barne, *zinien* eman digutela ikusita, logikoa bailirudike, antza, 'xuk' horretarako *xinuen* ez besterik agertzeak.

3-32 zk.ko adibideetan garbiro ikusten da, herri guztietan era egokia bildua izatearekin batera, era pertsonabakarrekoek ere egin duten bidea.

3-33 eta 3-34 zk.etan biltzen diren tokako eta nokako alokutiboetan ez dugu halako mutursartzerik ikusten –horregatik ez dira koadro hauetan islatu– baina ez da berdin gertatzen 3-35 zk.ko adibideetan, hauen artean lagin bat baitugu Eaurtan bederen: *gintzaxun*, errepikaturik gainera.

3-36 zk.ko adibidea guztiz garbi dago; ez da horretan era pertsonabakarrekoen aldetik inolako eraginik ageri.

3-61 zk.: hemen hasten dira pluraleko adibideak; izan ere, herri guztietan era egokiak biltzearekin batera Otsagin eta Espartzan kasu desegokiak ere aurkitu baititugu. Eta adizki honen tokako alokutiboari dagokionez –3-62 zenbakia–, akats hauxe Eaurtara zabaldurik ikusten dugu.

3-65 zk.an ageri zaigu lehenengoz, *nor-nork* sailean, *zintzan* moduko era desegokia XIX. mendeko Eaurtako materialetan –pluraleko egoeran eta hiru pertsonatan bakarrik ditugu honelakoak–, duela urte gutxi, herri berean eta xukako eran, eman ziguten *xintzan*-en parekoa –'xintzan' egokiagoa litzateke, behar bada, adizkiaren barne-huna busti behar izan gabe–. Espartzan, ordea, singularrerako eman erantzunari jarraiki, *txunen* bildu genuen, eta hau adizkiaren lehenengo leherkaria sandhi baten ondorio izan ote zitekeen jakiteko erne ibili ondoren, zeren, *xan txúnen* jasotzeaz gainera, *erósi txúnen* bildu baikenuen orobat –agian *erósi tsúnen*–. Otsa-

gin, dena den, eta zail zirudien arren, ‘zintuen’ era egokia bildu da duela urte gutxi²⁰.

3-72 zk.: hona Bonaparteren denboretan, *nor-nork* sailean, oker erabiltzen ziren hiru adibideetarik beste bat: *gintzan*, gure egunotan ere datuak bildu ditugun herrietara guztiz zabaldua. Berarekin batera, dena den, era egokiak bildu dira Otsagin eta Orontzen. Otsagin, gainera, *gi(n)tzuen* era ustez nahasia bildu dugu.

3-73, 3-74 eta 3-75 zk. etako adibideak 3-72 delakoaren tokako, nokako eta zukako/xukako alokutiboak ditugu. Bonaparteren denborako Eaurtako adibideetan indefinitu edo neutroak oraingo adizki hauetan eraginik erakutsi ez bazuen ere, gure egunotan ez da guztiz horrela gertatzen, herri honexetan bildu baitira, era egokiko adizkiekin batera, pertsonabakarrekoen ‘murtursartzea’ erakusten duten bestelakoak ere. Otsagin dugun adibide bakarra ere –tokako kasuan hau– azken era honetakoa da. Espartzan, alokutibo hauetarako bederen, adibide jatorrak eskuratu dira, xukako kasuan bi eratako adibideak bildu baditugu ere.

3-76 zk. ko kasua dugu, beti ere *nor-nork* gisako sailean, XIX. mendeko hirugarren eta azken adibide desegokia Eaurtan: *zintzayen*. Ikusten denez, jorera horrek hala jarraitu du han gure egunotara arte, Espartzan, artean, ustezko era jatorra mantendu dela.

2) Bonaparteren aipatu Eaurtako datuen eta hala haren garaietan nola lehenagoko denboretan ere bildu ziren beste eskuizkribu batzuetako adizkien arteko erkaketa.

Jarraiko koadroetan, XIX. mendeko Eaurtako zutabe bera oinarritzat hartuz, garai hartako zein lehenagoko ebanjelio eta dotrinetan zernolako emaitzak ageri diren ikusi ahal izango da. Herri-izen bakoitzaren azpian tokian tokiko eskuizkribua noizkoa den ezarri dugu.

Dokumentu horietan badira, oso gutxi izan arren, erkaketarako ongi datozen adizkiak, aipatu ordezkapena aspaldikoa dela agerian uzten dutenak. Dakigunez, Bonapartek Eaurtan bildu zuen informazioaren arabera plural-kasuko lau besterik ez ziren, guk 1-38 –*nor* sailekoa–, eta 3-65, 3-72 eta 3-76 zk. ez –*nor-nork*-ekoak– zerrendatu ditugunak, eskuizkribuetan singularrean ageri diren beste adizki batzuk, zorioneko erkaketarako, hona ekarri baditugu ere. Kontuan hartzeko moduko gauza da, halaber, Eaurtan bildu ebanjelioa eta dotrina esku bakar batenak direla –Pedro José Samper Elizari apaiz eaurtarrarena–, zein, horretaz gainera, Bonapartek bilduriko inkestaren erantzulea izatea suertatu bide baita. Koadro hauetako 2., 3. eta 4. zutabeen emaitzak, beraz, informatzaile berberari zor zaizkio; ezin egon liteke, beraz, logikaz bederen, horien arteko diferentzia nabarmenik.

²⁰ Azkonakoetxeko lagun batek honela: ... *edo amabi urteak kunplitzen zintuelaik, ala!, Erribrala, lan egitra...* (Nafarroako euskaldunen mintzoak, II)

adizki-zenbakia	Eaurta XIX (Bonap. 1872)	Eaurta ebanj. 1869	Eaurta dotr. 1866	Otsagi dotr. 1834	Orontze dotr. 1857	Itzalle dotr. 1727	Igari dotr. ??
1-38	<i>zintzan</i> ²¹	<i>zintzan</i>			<i>cinzan</i>	<i>zinzan</i>	
3-21	nuen		nuen				
3-25	zinuen		cinuen	cinuen		cinuen	cinuen
3-32	ginuen		guinuen	guinuen	guinuen	guinuen	guinuen
3-36	zinien		cinien				
3-65	<i>zintzan</i>						
3-72	<i>gintzan</i>				<i>guinzan</i>		
3-76	<i>zintzayen</i>	<i>zintzayen</i>					

1-29 eta 1-38 zk.ko adizkiei buruzko iruzkina (aurrenik gerorako utzia)

Zenbaki horien bidez ekialdeko mintzamoldeetako²² *nor* sailean ditugun ‘zen’ eta ‘ziren’ adizkiei egokituriko zukako edota xukako alokutiboak bildu ditugu. Hauek, zaraitzueraz eta erronkarieraz, *nor-nork* saileko 3-25 eta 3-72 zk.etan ditugun adizki ez alokutiboen isla dira –zaraitzueraz, gainera, tokako eta nokako kasuetara hedatua–, Ahuñamendiz iparraldeko eremu luze-zabaletan gertatzen ez dena.

Hona, diogunaren lekuko, prestatu ditugun jarraiko koadroetako datuak. Hauek Zaraitzuko bi herritan –Eaurta eta Espartza–, Erronkariko beste bitan –Bidankoze eta Uztarroze–, Nafarroa Behereko batean –mugatik gertuko Mendibe herri garaztarra– eta Zuberoako beste batean –Ligi-Atherei, mugatik ere aski hurbil– bildu diren datuekin osatu ditugu.

Iraganaldiko 1-29 eta 1-38 zk.etan, dela zuketan dela xuketan *nor* saileko ‘zen’ eta ‘ziren’ adizkien errespetuzko alokutiboekin, bai-eta berekin erlazionatu toka eta nokako adizkiekin erkatzeko xedez, orainaldiko 1-10 eta 1-19 zk.ko adizkiak eta hauekin erlazionatu toka eta nokakoak sartu ditugu koadroetan, era honetan, nolabaiteko orokortasun batean, informazio osoagoa ematen dugulakoan. Datuak, Bonaparte printzeak Bidankozen bildu eta 1872an argitara eman zituenak izan ezik, lerro hauen egileak jasoak dira²³.

²¹ J. M. Satrustegik argitara emaniko *Euskal testu zaharrak* liburuan ere horrela: *bata eta bercea cinzan sandu eta vituoso* [sic] *ceren...* (162), edota *ontarzunac baratu cinzan munducontan* (166), eta *Zaraitzuko euskararen lekukoak* izenburukoan orobat: *baia lehenic manatu citçun, Patriarcha Noeri eguin cezala arca bat, zoinaren eguitean igari cinzan egun urte* (464).

²² Bonapartek, bere mapa handian, *purpre* eta *brun* kolorez jantzi zituen zubereraren eta behe-nafarreraren esparruan, alegia, azken honi, Pedro de Yrizarren arabera, Garazi inguruko Luzaide eta Arnegi, Baigorriko kantonamenduari dagozkion Irulegi, Anhauze, Azkarate eta Lasa, eta are Hazparne ondoko Lekuine erantsi beharko litzaizkiokeela. *Morfología del verbo bajo navarro oriental* (I-II).

²³ Mendibeko datuak Pedro de Yrizar jaunaren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental* (I) deritzan lanean argitaraturik daude eta Ligi-Athereikoak jaun beraren *Morfología del verbo auxiliar suletino* izenekoan. Bidankozekoak eta Uztarrozekoak ere Yrizarrek berak argitara eman zituen *Morfología del verbo auxiliar roncalés* izeneko lanean, Bidankozekoan kasuan Bonaparteren 1872ko datuak baliatuz. Eaurtako eta Espartzako datuak, azkenik, Yrizar berberaren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental* (III) izenburuko lanean kausi daitezke.

Eaurta, 1989-93	
adizki-zenbakiak	adizkiak
orainaldian	
3-05 = 1-10	xu = xu
3-06 = 1-08	duk = duk
3-07 = 1-09	dun = dun
3-45 = 1-19	txu = txu
3-46 = 1-17	tuk = tuk
3-47 = 1-18	tun = tun
iraganaldian	
3-25 = 1-29	xinuen = xinuen
3-26 = 1-27	yuen = yuen
3-27 = 1-28	yuen = yuen
3-65 = 1-38	<i>xintxan = xintxan</i>
3-66 = 1-36	ituen = ituen
3-67 = 1-37	ituen = ituen

Espartza, 1991-92	
adizki-zenbakiak	adizkiak
orainaldian	
3-05 = 1-10	xu = xu
3-06 = 1-08	duk = duk
3-07 = 1-09	dun = dun
3-45 = 1-19	txu = txu
3-46 = 1-17	tuk = tuk
3-47 = 1-18	tun = tun
iraganaldian	
3-25 = 1-29	xunuen = xunuen
3-26 = 1-27	yuen = yuen
3-27 = 1-28	yuen = yuen
3-65 = 1-38	txunuen = txunuen
3-66 = 1-36	yituen = yituen
3-67 = 1-37	yituen = yituen

Bidankoze, 1872	
adizki-zenbakiak	adizkiak
orainaldian	
3-05 = 1-10	tzu = tzu
3-06 = 1-08	duk = duk
3-07 = 1-09	dun = dun
3-45 = 1-19	dutzu = dutzu
3-46 = 1-17	tuk = tuk
3-47 = 1-18	tun = tun
iraganaldian	
3-25 = 1-29	zunien = zunien
3-26 / 1-27	yon / zia
3-27 / 1-28	yon / zia
3-65 = 1-38	zuntien = zuntien
3-66 / 1-36	yitien / zria
3-67 / 1-37	yitien / zria

Uztarroze, 1975-90	
adizki-zenbakiak	adizkiak
orainaldian	
3-05 = 1-10	duzu = duzu
3-06 = 1-08	duk = duk
3-07 = 1-09	dun = dun
3-45 = 1-19	tzu = tzu
3-46 = 1-17	tuk = tuk
3-47 = 1-18	tun = tun
iraganaldian	
3-25 = 1-29	zunien = zunien
3-26 / 1-27	yien / zia
3-27 / 1-28	yien / zia
3-65 = 1-38	zuntien = zuntien
3-66 / 1-36	yitien / zria
3-67 / 1-37	yitien / zria

Mendibe, 1998	
adizki-zenbakiak	adizkiak
orainaldian	
3-05 = 1-10	duxu = duxu
3-06 = 1-08	duk = duk
3-07 = 1-09	dun = dun
3-45 = 1-19	txu = txu
3-46 = 1-17	tuk = tuk
3-47 = 1-18	tun = tun
iraganaldian	
3-25 / 1-29	xindien / zuxun
3-26 / 1-27	hien / zian ²⁴
3-27 / 1-28	hien / zunan
3-65 / 1-38	xintien / zitxun
3-66 / 1-36	hitien / zitian ²⁵
3-67 / 1-37	hitien / zitunan

Ligi-Atherei, 1999	
adizki-zenbakiak	adizkiak
orainaldian	
3-05 = 1-10	düzü = düzü
3-06 = 1-08	dük = dük
3-07 = 1-09	dün = dün
3-45 = 1-19	tützu = tützü
3-46 = 1-17	tük = түк
3-47 = 1-18	tün = түн
iraganaldian	
3-25 / 1-29	zünien / züzün
3-26 / 1-27	hien / zia
3-27 / 1-28	hien / ziña
3-65 / 1-38	züntien / zütützün
3-66 / 1-36	hütien / zütia
3-67 / 1-37	hütien / zütüña

²⁴ Hau *zuan* batetik dator, agi denez, *ua* hori *ia* bihurtzean.

²⁵ Kasu berean gaude, hau ere *zituan* batetik dator eta.

Koadroei behatu bat eman eta, agian nabarmenen ikusten dena orainaldiko adizki hauen artean ematen diren uztartzeak izan daiteke, hauek erabatekoak baitira, zein bere herriaren esparruan, jakina. Hots, *nor-nork* saileko 3-05, 3-06 eta 3-07 zk.etan eta 3-45, 3-46 eta 3-47etan ditugun gaztelaniazko ‘tú lo(s) tienes’ –xuka/zuka, toka eta noka– bateratsu datoz *nor* saileko 1-10, 1-08 eta 1-09 zk.ko zein 1-19, 1-17 eta 1-18 zk.ko alokutiboekin, koadroetan ikus daitekeen bezala.

Iraganaldian, ordea, Zaraitzun bakarrik ditugu gainerako lekuetan gauzatzen ez diren bestelako uztartze guztiak; hots, hala Eaurtan nola Espartzan, beren arteko diferentziaren bat gora-behera, *nor-nork* saileko 3-25, 3-26 eta 3-27 zk.etan eta 3-65, 3-66 eta 3-67etan ditugun gaztelaniazko ‘tú lo(s) tenías’ –xuka, toka eta noka– bateratsu datoz, erabat, *nor* saileko 1-29, 1-27 eta 1-28 zk.ko zein 1-38, 1-36 eta 1-37 zk.ko alokutiboekin, koadroetan ere ikus daitekeen moduan.

Erronkarin uztartze hau zukako kasuetan dakusagu soilik: *nor-nork* saileko 3-25 eta 3-65 zk.ko adizkiak bateratsu datoz *nor* saileko 1-29 eta 1-38 zk.ko zukako alokutiboekin, baina hauekiko toka zein nokako kasuetan ez da gauza bera gertatzen.

Zaraitzuerara itzuliz, baina, eta hau da iruzkin xume honen mamia, uztarketa hori erabatekoa izan arren, ordezkapen bitxi bat gertatu bide zen inoiz, Eaurtan gutxienez, *nor* saileko 1-24 zk.ko *xintxan* adizkia –gaztelerazko ‘tú eras’ (xuketan)– *nor-nork* saileko 3-65 zk.ra –gaztelerazko ‘tú (te) los tenías’, itxura erreflexibo batez– ustez eraman zenean. Honen ondorioz, eta Zaraitzun bezala Erronkarin ere, 3-65 zk.ko adizkia 1-38 zk.koarekin uztartzen zenez edo, nahiago bada, 1-38ra ‘eramaten’ zenez, hona hemen, Eaurtan, akats larri horren ondorioz, *xintxan* hau ‘ziren’ en xukako alokutibo gisa, berez 1-24 zk.ko ‘xu’ kasurako egokia bada ere, arestian esan bezala.

Espartzako kasua bestelakoa iruditzen zaigu, kontuan hartu behar baita *nor-nork* saileko 3-36 eta 3-76 zk.ko kasuetarako –gaztelerazko ‘vosotros lo(s) teníais’, alegia– *zinien* (hau bai, Eaurtan bezala) eta *tzinien* ditugula, nondik, singularreko bigarren pertsonarako, agian –xukako erak erabiliz– *xinuen* (Eaurtan bezala) eta *xintuen* itxaron zitezkeen. Haatik, bigarren pertsonan ditugun *xunen* (sing.) eta *txunen* (plur.) horiek orainaldiko *xu* eta *txu* direlakoetatik ekarriak diren susmoa dugu; hala ote dira?

Zaraitzueratik kanpoko behe-nafarreraren eta zubereraren kasuan –adierazpen honetarako adibide guztiak zukari egokituz eta Amikuzeko zein Zuberoako *ü* batzuen ahoskera zein laburbilketa batzuk bazter utziz–, lehen ikusi uztartzeak orainaldian bai, gauzatzen dira, baina iraganaldian ez, koadroei behatu bat emanez gero aise antzeman daitekeenez.

Gainera, *nor* saileko 1-29 eta 1-38 zk.etan, ‘zen’ eta ‘ziren’ adizkien xukako zein zukako alokutibo gisa kausitzen ditugun emaitzak orainalditik erakarri izanaren ‘usaia’ dute, gure uste apalean.

ETNOTESTUAK ETA BESTE

Azkenik, eta bere egunean hiru zatitan banatu genuen Eaurtari eskainiriko lan honi bukaera emateko, informatzaileen ahotik bildu lekukotasun batzuk ekarri ditugu hona, zenbait kasutan balio etnologiko interesgarriak erakusten dituztenak, bestalde. Xuketan emaniko bi testuak bai adizkiak ema-

tean bai era horretako pasadizoak kontatzean informatzaile bikaina izan dugun andere Javierari zor zaizkio.

Gainerako informatzaileek ez zuten, elkarrizketa librean, xuka erabili, horretaz landa zera gaineratzen ahal dugula: Carmelok anitzez hobeki ahoskatzten zuen Salvadorrek eta Pablok baino, hauei, zenbait pasartetan, nekez baikik ulertzen ez zaiela.

Ikusiko denez, galderak egitean saiatu ginen geure euskara, hein batean bederen, haienera moldatzen beraien aldetiko ulermena errazteko. Galderak, gainera, orraztu egin ditugu ondoren, neurri batean izan bada ere²⁶, era koherente eta txukun batez agertzeko asmotan. Irakurleak badakike, horrenbestez, zaraitzuerara hutsezko mintzamoldea informatzaileena dela eta ez gurea.

Eaurta-Ezkaroze errepeida (Carmelo Krutxaga, 1990)

- *Zu gazte zintzalarik, karretarara noraño zagon eginik?*
- Eáurtaráño²⁷; Aríberík Eáurtara ta... Eáurtarík Eskározero (zuzenduz:) Eáurtarík Eskàrozéra etzágon karrèterárik; ez, geró e(g)in duté... geró ein duté, bai. Etzágon... karretérárá etzágon, bàizik ére Abúrgañaal'ártio, kandík altzíña éz, ta ní oróitzen²⁸ níz óngi egínik, karretéra kori...
- *orduan, Aezkoara gaindi fan zaiken Eaurtaraño?*
- Bai.
- *bai? Arike, Abaurregaña eta Eaurtaraño...*
- Eta Abúrrepéa...
- *Abaurrepea eta... Eaurtaraño?*
- Eáurtaráño, bai; kandík altzíña etzágon kàrreterárik. Karretérra zagón, Otsági, Otságabitík Irúnberrira, ta kotxé bat ebiltzen zén... bí zamarirékin, etzágon autórik. Géro ein zuté ... kamió²⁹ bat, berrírik³⁰, ta... korréspóndénziára... ermáten zuén bí zamarík kótxe batián Irúnberrir'ártio; ta geró, Irúnberrírik, egutzén zen kotxéa Irúñára –bai, Irúñara, kóna–, ta kála.
- *eta kotxe kartan zenbat jende fan zaiken?*
- Ah, pues... según... amaírur, amaláur... amabó(r)z, edo akáso yágo edo gútiago, según...
- *bí zamarik tiraturik?*
- Bai, bí zamárik, bai... bí zamári.
- *eta nola faten ziren? trostan? nola erraten da uskaraz 'al galope'?*
- E... uskáraz erràten zutén... laixtérka!, laixtérka faten zén!
- *zenbat denbora bear zuten Nabaskozera fateko?*
- Etzúen... ténpra xakiník. Ari z(r)élarik kótxëak, segído... esèri zutén kotxéa... línea kortan, Irúnberrir'ártio; ta kándik altzíña autóa, kon'ártio autóa.
- *orduan, Ezkarozetik Eaurtara ez zen karreterarik, e?*

²⁶ Adibidez, gure lehenengo galdera orraztean nahiago izan dugu *noraño* hitzaren muga-adlatiboa bere horretan uztea, zaraitzueraz, gehienetan bederen, 'norartio' aditzen dela uste dugun arren.

²⁷ Arestiko orripeko oharrean aipatu denaren haritik, *Eáurtaráño* horrek darakusan muga-adlatiboa galderak eraginda egon liteke. Kasua errepikatuko da aurreraxeago, gainera.

²⁸ Zaraitzun, inoiz esan dugun moduan, *oritzen* aditzen da gehienetan.

²⁹ *kamió(n)* aditzen ote den dirudi.

³⁰ Ez da oso garbi aditzen.

- Ez... *éz-ez-ez*. Zámári bat ebiltzen zén, peáton batekín Eáurtarík Otsága-bira, bai; baia géro, iór itzériz³¹ óngi, karrétérara egiñík... áhöra, ya lo creo!
- *eta noiz egin zuten Eaurtarik Ezkarozerañoko tramoá?*
- Éniz orítzen, ez...
- *baia zuk izaundu duzu?*
- Ní'bai, báí-bai... ní ére egon nitzán karretéra kortán trabajátzen!
- *bái? eta zer lan egin zinuén?*
- Ah! pues píko bat artúta, píköarekín... lúrra mog(u)íl, èdo karretílla bát, ga-rretílla batzúr baiz... baiztién, karretíllak ermán, falt'íten zuén lekúala; ta kála.
- *eta jende anitz egon zen kan, lan egiten?*
- Báí-bai-bai... askí ere; éniz orítzen ézta'é zéma'zaudé(n); berrógei e(do) berrògeitámar edo... ór segúru askí...
- *nagusi edo kapatáz batekin edo...?*
- Kapatáz bat. Eztáit nóla déitzen zen.
- *eta nongo zen? kemengo, Iruñako edo? Iruñarik kara fanik edo...?*
- Bai, kétarik faník; kandík étzen, kandík étzägon, etséreki.
- *eta zenbat denbora bear izan zinien karreteraren egiteko?*
- Eníz orí-, askí fite ere egin zutén, bai. Ni orítzen ní z óngi... jornále gúti pagátzen zutén; ta... astéa igartzén zen, ta ník berrògeitáiru pézta kobrátzen nituén, yágo éz. Ta... ník bezála bérzek ere báí.
- *kori, astean?*
- Astían, bai; baia dírua gárbi.
- *eta trabajari guziak ziren Eaurtako?*
- Ez, aníz lekútakò; aníz faten zén... kétarik iràgan zén ani(t)z. Ta aníz leku-tarík fan zén. Karretérrará... Eaurtarík Eskarozéra, èin zutén ené... ené dén-bran; lén etzägon karretèrarík.
- *ogei urte edo, izanen zintuen³² zuk orduan?*
- Yágo! yágo... ogèitabós edo séi úrte banituén.

“Las Mugas” deritzon festa-eguna (Carmelo Krutxaga, 1990)

- *Eta zer da “Fiesta de las Mugas” edo, deitzen duten kori?*
- Ah, múgak? kan, Frántziak eta Espáñak iten duté, ègun bátez... faten dirá múgen rekónozitzra. Ta kán egiten duté askári bát, arági, frántzesék eta es-páñolek; iten duté kán... faten dirá rekònozitzrá múgak, bai.
- *noiz egiten da kori? zein egunetan?*
- Éniz oróitzen zér egunéz... zér egun dén.
- *zaraitzuarrrak faten dira? zein erritarik?*
- Bai, báí-bai... Otságabi-...tík³³, ta... Eskározerik, f(u)áten dirá; béste errié-tarík ez. Ta... franzés, béste bí erri, edo írur... áutxak, erràten bàitakoré, áu-txak; uskáráz, erràten dakoé áutxa.
- *bái? frantzesa errateko?*
- Frantsésa erráteko; gúk erràten dabegú... áutxa; etá franzésa.
- *baia izanen dira uskaldunak, ez? Larrañekoak edo...*
- Larrañekóák eta o... de bárnago.

³¹ Horrela aditzen dela dirudi, zer den ez dakigula.

³² Galdera hau oso ongi ulertu zuen Carmelok, usadio handiko ‘zintzan’ adizkia erabili ez genuen arren.

³³ Etenaldi bat egin izanari zor dakiok, agian, kasu honetan -rik gabe -tik erabili izana.

- ez dakizua zein erritarik xiten diren mugara? Muga-festara? berze aldekoak zein erritako diren ez dakizu?
- Ah...! mugará? pues... badágo mendi bát erràten báitakoé... Óri, el púco de Óri, ta kán iten duté x... júntara, júntak... kan.
- *baia zein erritarik xiten diren ez dakizu...*
- Éz-ez... a lo mejor, San Juan de Pie a Port (sic), dá urréená... bai.
- *eta Orin biltzen dira; rekonozitzen dute mugara...*
- Rekónozitzén té múgará ta... eíten duté egún bat oník, buen askarí... ta ¡viva la Pepa!
- *eta bazkaria non egiten dute? zein lekutan?*
- Espáñakó ta Fránzia-múgan, Orí(n).
- *mendi-mendian? kan?*
- Méndi-méndian, kán-kan-kan... kan... ermáten duté arágia érritik...
- *eta denbora gaixto dagolarik ez direa sartzen borda bateala edo?*
- Trénpra (sic) gáxto daonián bai, berzálá ez, méndian, kan.
- *ermaten dute musikarík edo...?*
- Ez; éz-ez-ez... músikarík ez.
- *eta bazkaldu ondoan?*
- Ah...! láur brínko... ta yá (e)sta. Autxák, franzésak, esértzen dirá aníz tenplátu.
- *nola?*
- Autxák esértzen dirá... bazkáldu ondöán aníz tenplátu; dirá terríble gáuza kóitakò.
- *zer arren, edaten dute mittika bat edo?*
- Báí-bai... anítz!... ánitz. Len, etzágon karrétarík, baia órai, bádagó karréterá, ta aútxak fáten dirá karretér(r)ará gaíndí, Otságabíra, ta kán moz-kórtzen díra; edáten duté koñák, ta anís... ta páxarán... ere báí, gáuza koi-tarík.
- *eta zuekin, uskaraz xardokiten zuten?*
- Bai, uskál-dunak d(i)relarík bai, urdérará ez, (zuzenduz:) erdérará ez, uskál-dunak sólo.

Artzaintzaren ingurukoak (Pablo Arozarena, 1992)

- *Bai? Erriberan egon zira? zein lekutan?*
- Así... kendík, Irünberririk... géro eon nintzán... irúr urtez.
- *Irunberrin?*
- Bai, errítik be(r)zé ontara, berzé aldera³⁴. Geró, Baldòrbará guziá; oròitzen níz Larrágon³⁵.
- *eta Baldorban, zein erritan?*
- Órai yá ézkau³⁶: Gáldaráine, Subíza³⁷... Léoz éta Gáldarain da auétra (?)...
- *baia koiek [aurreneko biak] Oibarre ballekoak dira; Baldorban berze erri batzuk dira: Iratxeta, Leoz, Amatriain, Benegorri, Bezkiz...*

³⁴ *berzé alderua* aditzen ote den gaude.

³⁵ Larraga herria datorkigu burura, nola ez, Orbaibarretik kanpo egon arren.

³⁶ Agjan 'eztaude' itxaron zatekeen, gaur egun leku horietan ia inor ez dagoela kontuan harturik.

³⁷ *Sabaiza* behar luke, gure ustez, Subiza izeneko herria Erreniega -'El Perdón' ere deitua- mendia-aren hegoaldeko magalean kokaturik dagoenez.

- Kóitan é niz ego(n).
 - *zu zeinetan egon zira?*
- Galdaráin, Oláz, Lèatx(i)é... ta... Moriónes... àlde kórtan.
 - *jende guti bizi da orai kor, e? erri koietan...*
- Beh! yá iór oreré³⁸, edo gúti.
 - *Gardalain bera ere txikin-txikina da...*
- Gàrdaráin... orái, dèsapàrezitúdu (sic) dá... guziá.
 - *eta zu egon zintzalarik, zenbat familia zen kan?*
- Bós, séi... bó(r)z odo³⁹ séi; kén [Ilunberrin, alegia] badagó familia bat, kan, karrétan⁴⁰ egonik. Arúan (?) ez... fatian Zàitsuéla⁴¹ lémexko erría: Doméño. Bí mazté... bí aizpá ta bí anáe; láurak. Eta... geró, Tutréan, Tudélan, Béiren, Zaràkatzélun (sic), Mélída... Erríberkoík guziák. Xádában –Aráguá... Sadába'rá Áraguaköà– ta Tàustén? Tàusten bí úrte.
 - *Tausten bi urte?*
- Tàusten? bí urté... (...) eta bé(r)ze aldéa dá, Taustérik... Castelláira, Castelláira...
 - *Castillíscar edo...? [galdera okerra, gurea]*
- Castellíscar dáó (...) góiti kortan; Xádabara... baño góitiago. Bàëa... Castelláira, La Virgen de la Castilla⁴²... zerá ortan ta kán ogèitabída úrte.
 - *etxetik kanpoko tenporadara, luze zena?*
- Bederátzi ilabeté...
 - *eta zenbat ardi zintuen⁴³?*
- Ník enuén ardirík; nausiák... míla biégun, míla irurégun árdi.

Eultzia (Javiera Urralburu, 1993)

- Fatén gintzaxún alòrréalá, tálluarekín... talláriá gizóna, ta... ta màxklariá emaztékiá; eta tallátzen zíxun, ta emáztekiák maxklátzen zíxun... axéka-axéka; ta géro, kúra, bíltzen ginixún balétra, etsákai'atekin, etsakáiekìn, lotzéko... etsákaiá! bálaren lotzéko etsákaiá; ta géro eráutzen gintz-... erótzten... ginixún? bálak, àbriarékìn, llàrreniála, ta llàrrena lénik prestàtzen ginixún erregátuz ta zanpátuz ta... al gínuen bezála, ta géro pues, edátzen ginixún eúltzia, egúna ónik bazágon, eta ábrekín, indarrásia... tér-ter-tér, ábrekín pikátzen ginixún, buélta emanéz, nóizian béinka, aréari: gári bazén, edo ólo bazén edo zernái bazén.

Ta géro, pues artsáldian, géntzen giniakoxún lemizíko... pikátzen zenían, lemizíko... làstóá, kentzén giniakoxún, ta bérriz buélta emán eta bérze buélta bát abríekin, indarrásiarekìn, ta géro, bíltzen ginixún yá eúltziá, agótza álde bát ta ondárta berzé bat; ta áizea bazagón, áiziari: äizàtzen ginixún, leník

³⁸ Ohiko *ior ere* batetik *ior orere* horretarako *o* baten aldeko asimilazioa soma daiteke, alde batetik, eta soberaxko *ere* bat, bestetik.

³⁹ Beste asimilazio baten aurrean gara, itxura guztiaren arabera.

⁴⁰ Ez dago oso garbi.

⁴¹ 'Zaraitzura' da hori, noski.

⁴² Mapa batean ikusi dugunez, 'ermita de la Virgen del Castellar' delakoa Taustetik hegoekialde-rako norabidean dago kokaturik, Ebro ibaiaren ondoko Alagón herritik hurbil.

⁴³ Pablok ere ezereen eragozpenik gabe ulertu zuen lehenago aipatu 'zintuen' hori, nahiz galdera egitean, agian, 'zinuen' erabili beharko genukeen, eta Salvadorrek ere berdin, geroxeago ikusiko denez.

agótza, ta géro ondárta, ta ez bázeikén gárbi, ólabáiarékin... ermáten ginia-koxún agótza gen, ta géro, bàiarékin, gària gárbi... ta yá está!

- *eta 'maxkla', zer da?*

- Máxkla... gári pues, bil. Tallúa érrékara, tallú-errékara... bil, áxëa, máxkla-ra, el brazaö, máxkla; ta géro kurá, uztén xinuéen riéka, balétra biltzekò.

- *y 'erreka' a qué le dice? [Javierak une hartan senar-emazte erdaldun bat bisitari zuela-eta galdera erdaraz egin genion]*

- Erréka? lo que volca la dalla, lo que volca la dalla.

- *'erreka' también llamaban en Roncal al surco que hay entre, cuando se siembra...*

- Ah! sí, eso también, errékara, eso también, porque es surco y... al fin y al cabo, pues, la ría que deja la dalla, también, es surco.

- *y a la raya del pelo, en Roncal, también le decían 'erreka'...*

- Erréeka [baieztatuz edo]

- *¿también? kemen ere bai?*

- Bái-bai.

Artzaintzaren inguruko bideak (Salvador Karrika, 1995)

- *Ardiekin ebili zira?*

- Oái ez.

- *denboraz bai? gazte-denboran?*

- Bá-ba-ba... béti ártztai⁴⁴.

- *eta noraño fan izan zira?*

- Uhhh!... Bárdeála ta... Tzáragótza ta Huésca ta... kóita.

- *oinez? kemendik?*

- Kéndik, kéndik, óñez, óñez; órai yá ez, órai faten dá aníz yá kamiónekin; boh! lén éb(i)liz, guziák. Zá(z)pi, zó(r)tzi, bed(e)rátzi, ámar, égun, ébliz.

- *zein lekutarik igaretzen zintzan?*

- Pues [bidé?] koitarík, kortík, fàten gintzán, kendík, Kásedará...

- *bai baia, Kasedara beño len... kemendik Ezkarozera edo nora?*

- Éz-ez-ez-ez. Kendík, bérze bat; kendík... badá... Aizkúren dá besté erri bat. Érri txíkin batzuk.

- *baia kemendik fatean ez zintzaen igaretzen Zaraitzuko errietan barrena?*

- Ez, ez...

- *kemendik, zuzen kara?*

- Xúxen kára; kéndik xúxen kára.

- *eta len-lenik zein erritara?*

- Pues lemíziko èrria gún (?)... zéra, Arízkúren; géro kó(r)dik badá Ozkóidira. Ozkóidi arró(i)l gortík yá Rípodasèra, ta Rípodaserík Irúñara [geroxeago zuzenduko du]; Iñùñarík Oibàrrera, Oibàrrerík Kasédara (...) ta yá Bárdia-la, Bardénara.

- *Ripodaserik Oibarrera?*

- Oibár no, Irúnberrera.

- *Irúnberrera. Eta Irúnberririk?*

- Óibarrera, Áibarrera; eta kandík Kásedara.

- *eta kandik?*

⁴⁴ Agian 'arztai', 'aztrai'... ere, izan liteke.

- Kandík, Kásedarík, ya... Kàsedarík pues sartzé (?), Bårdenan sårtzein, xår-tzen zén, yá Carcastíllu, Zàrrakasztélu... Zàrrakasztèlurík zériaia, ya, Bårdiala sartzen zén.

- *Galipenzurik igare gabe?*

- Galípéntzuik èz, kándik ez gintzén igási⁴⁵. Batzén [= baratzen] da Garipe(n)zú izéeka (?) ezkèrreala; gú apárte.

- *orduan, Zaraitzuko errietarik ez zintzaen igaretzen...*

- Éz-ez-ez... kéndik ez.

- *zein dira Zaraitzuko erriak?*

- Záitzuko erríak? pues yótzen dá kéndik ta kéndik eta báda ere, ba Otsái, eta Eskaróze ta... pues, zemát-, zomátzuk fátén (...), por ejemplo Otsa(g)íkòak, igàrtzen zán Eskarózeik, Ibilziéta, Ibiztárik eta... kára; gú kéndik ez.

- *ardi anitz eramaten zinuen?*

- Pues óri, según: zazpiégun, zortziégun, míla... míla ta... míla borzégun, ta en fín, kála... ségun.

- *eta lo egin, non egiten zinuen lo?*

- Pues... méndian, nón (t)zértzen zen; arbóle pétan, bérdin. Tokátzen zaidanéan errietán, errietán; tokátzen (...) pues méndian!

- *eta euria⁴⁶ egiten bazuen?*

- Pues euría eíten badú pues... bùstíta. Ánitz alditán bórdak zaudetxún⁴⁷ baia... ánitz aldíz pues al ráso... al ráso.

- *eta xateko, zer?*

- Xàtekó? ógi ta... ógi ta bétí... ógi ta... bétí urdáki ta... bétí zerbáit.

- *eta migak?*

- Boh! gáuza korí, míga korí... je! ói bétí!

- *nola egiten ziren?*

- Guk, zéra... èiten ginuén, míga, ogí ta (...), eta géro, zéra, mígak, obekién-obekién ìten déna ta egúna (...) zérekín: séboarekin⁴⁸; órioa... eta kúek ta, ja.

- *eta kara ellegatuz gero, zein erritan egoten zintzan?*

- Ní eón nitzé urrián ta, Táusten, egón níz Táusten; egón níz Buñuélen, ègon níz... Karrá- (zuzenduz:) Zàrrakastélu; ègon níz Baltiéra... ta géro ègon níz Táuste, eta géo kándi yá... t' Aragón, ta égonik nagó... Zaragózan. Ta géro... Huéscan, erán (?), Huéscá... Kén fátén zintxán, ánitz fátén zén... ártzai, negúko, ta bérze ánitz fátén (t)zén ténbraz Frantziára, lànèála, ta géro... en fín, negúko fátén zén jènde guziák, jènde guziá kóitra, emázteak sólo bàrtzen zren kén, àrdi zienék árdiekin, eta... árdi⁴⁹ etzienerík Frántziara, ta géro Frántziarík...

Ta fátén zén kéndik, al laõ de Tudela báita... ór zér bat, èrri bátzuk, Olíbara... or dié trujáles eta zerbáit? ta bueno. Fátén zén bí kuadrílla, eta kán, kuadrílla baték, pues... úda guziá edo négu guzián bílgórrarekin, ta bérze kuadríllak, bérek eíten báitzien órioa, nègu guziák... ório, órioarekin. Bueno, kizérek (?) éta, ustéz yá xínen tenbrá ta gárèren tenbrá pues yá xín egúna... xitéko, bueno pues yá aplíkatu z(r)én fatéko xúnto bí kuadrílla; bah, béren... maxterrékin, fatéko báí bí kuadrílla. Ta kán bádagó, kan, ordóki án-

⁴⁵ 'igati' da hori, noski, errotazismoaren ondorioz *igási* aditzen bada ere.

⁴⁶ 'euri' egokiagoa izango zelakoan gaude, informatzailea, gainera, 'arrastaka' eraman genuela.

⁴⁷ *zaudetxén* aditzen dela dirudi.

⁴⁸ Geroxeago hitz honetaz oritu eta, *bílgórrara* esan zuen.

⁴⁹ *gárdi* aditzen ote den gaude.

di batzúk, de... Arguédas, Baltiéra... Zárrakastelúra badú... ordòki áviz, eta, órioak, ório órekín (sic) ta xàten zéna ézin ségi bízi (...) edókitzen.

- *nola erran duzu? 'orio orrekin xaten zena'...?*

- Xàten zuénak, anítzekin... ézin... bilgórrarekin xàten zuénak anítzèkín fuértiao; ezín ségi.

- *orduan bilgorrara obe da ezik orioa...*

- Bilgórrará obiáö, anítz óbiago. Eta géro, oái, sin embargo, bilgórra pues sí, tíra! tíra!... Ní egon níz... bé(i)n oritzen nitzán nola eon nitzán, ègun guzián, mayàtzetik eta... no, desde setiembre, urr(i)étik hasta... mayàtzialáño, kan, Bardenán, èrdi-erdían, bilgórrara, xan, bétí bilgórrara, tzópa ta zópa ta bilgórrak eré; ordúan míga, míga, míga, míga, míga, míga... bo(r)z-séi ilabéte, bát géyagorík (...), eta fuérte...!

- *eta noiz fàten zintzan kara, eta noiz itzultzen?*

- Pues... fàten nitzán... úrriän, setiènbrëan, eta... itzúl pues, máyatzan.

- *fán, sanmigeletan?*

- Bai, samíletan fán, eta primáberán yá... orái, buélta.

Ama Berjina Xuria (Javier Urralburu, 1998)

- *Ermita korrek zer du izen?*

- Virgen de la Blanca...

- *bai? eta uskaraz nola erraten dakoe?*

- Àma Bérjina Xúria. Bai... ta erràten zixún kóri, Àma Bérjina Xúria.

- *eta festa noiz da? egiten dea romeria edo...?*

- Pues... egún ketan izan txugú féstak; pues astéazkenëan bukátu xi-, astéartian bukàtu xintxán, bai, ta... en honor a... Amá Bérjina kóri.

- *eta zer, egiten da festarik ermitan?*

- Bai; pues... sonátzen xié mezán, ta akúditzen xú mezára, jéndiak, èta... báitagó... goitíxeagóto erría beño. Eta géro, mezàztik (sic) lánda, emàten xié aperitíbo bát... gázta, ógi eta árdo, ta ú(r)s, nài duénak, ta... dantzátren xié, los bailes... dántza... típiköák? ebénköök (...), kéngöök.

- *bai? kengoak edo Otsagikoak?*

- Éz-ez-ez... kéngöök.

- *kemen ere badira dantza tipikoak, eztea?*

- Bai, nexkátuek.

- *ah... 'Axuribeltza'?*

- Eeéso! xú'badakíxu? 'atzúribéltza' ta... béste dántza bát ere báí.

- *eta xuk badakixua nola den 'axuribeltza' kori?*

- Ez, eztiákíxut, ez báinitz élki kéndrik (sic), etxút ikúsi apénas... nola dantzátzen trén ere, bàia... apéritíböa artú, eta se conoce que dantzátzen tréla... érríko dántzak, errí ko(n)tan.

- *eta zer geiago egiten da? kori solo?*

- Kóri sólo; géro saúntsí, èrrialá, eta yá... musíkan... ratóxko bát, eta bázkal, bázkáltzra. Xítén xinuéen erríala jénde, askáltietán ín eta kála... pues bázkal. Ta géro, artsàldián, pelotáriak xitén txu, ta partidak xokatzén txie, báita... báita... frontóna! Y xókatzen txié ta, géro báílià!... étxu bérste... dibérsiorík, ta... ídia... èrretzén!...

- *idia erretzen?*

- Bai, artsáldian, ártsian.

- *suzko zezena edo 'torico de fuego' edo kori?*
 - Bai, kóri, étxu bérzeren... dibértsiu, ta dántzara, dántzak! dántzatzekò... bésterik déus'e! Ta géro, extixút bigárren edo irurgárren egúnëan, aurrén txokólatádara; ta azkén egúnián, laurgárren egúnian, barríde(e)k... bazkária. Juntátzen xié... étse batián, eta... orái, dedíkatu xu jendía... Konpañiaren... bazkária, Konpañía... baték eráutzen xú bazkária. Ta géro yá(e)sta 'pobre de mí' ta, bukátren txu... féstak.
 - *kori ere kantatzen dute, e? Iruñan bezala...*
 - Bai; kála! bàia... ní eníxu élki éz (...) ióra baia, éz ikúsi ére járik ere, kónan (sic) étxu igáten; len... emàten zixién buélta músikuek, orái bátre, bétí... kála!

BIBLIOGRAFIA ETA BESTE

- ALZOLA GEREDIAGA, N., "Una carta de D. Pedro José Samper, Vicario de Jaurrieta, dirigida al Príncipe Luis Luciano Bonaparte", *Príncipe de Viana*, año 19, núms. 72-73. Iruñea, 1958.
 ARANA, A., *Zaraitzuko Hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Hiria Liburuak, 2001.
 -, *Zaraitzuko uskara*, Nafarroako Gobernua eta Hiria Liburuak, 2002.
 ARTOLA, K., "Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (I) eta (II)", *FLV*, 58 eta 85, 1991 eta 2000, hurrenez hurren.
 -, "Zaraitzua aztertzeo ekarpen berriak" (1 eta 2), *FLV*, 91 eta 92, 2002-3.
 AZKUE, R. M. de, *Diccionario vasco-español-francés* (repr. facsímil), Edit. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
 BONAPARTE, L. L., *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*, Londres, 1863.
 -, *Le cantique des trois jeunes gens dans la fournaise, dans les dialectes basques d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal (...)*, Londres, 1868.
 -, *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezkoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aríbe, à Jaurrieta et à Vidangoz*, Londres, 1872.
 CAMINO LERTXUNDI, I., *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, 1997.
 ECHAIDE ITARTE, A. M., *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.
 ESTORNÉS LASA, J., "Zoiló'ren uzta. La cosecha de Zoilo", *FLV*, 45, 1985.
 EUSKALERRIA IRRATIA, *Nafarroako euskaldunen mintzoak (II)*, Nafarroako Gobernua, 1993.
 LAN TALDEA, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak - zaraitzera*, Deustuko Unibertsitatea (Deiker), Euskal Ikaskuntzen Institutua, Bilbo, 1997.
 MITXELENA, K., "Un catecismo salacenco", *FLV*, 39, 1982.
 SATRUSTEGI, J. M., *Euskal testu zaharrak - Zaraitzu (1780)*, Euskaltzaindia, 1987.
 -, "Zaraitzuko euskararen lekukoak", *Luis Villasanteri Omenaldia, Iker - 6*, Euskaltzaindia, 1992.
 YRIZAR, P. de, *Morfología del verbo auxiliar roncalés*, Euskaltzaindia, 1992.
 -, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, Euskaltzaindia, 1999.
 -, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (I-II-III)*, Euskaltzaindia, 1999-2002.
 -, *Morfología del verbo auxiliar suletino*, Euskaltzaindia, 2003.

ESKUIZKRIBUAK

ITZALLE (IZAL), 1727:

Doctrina Uscaras Dn Benito Gil escrituric ver governuarendaco. Yzallen Avenduaren amalaugarrenean, urte mila zazpitan eun eta ogei eta zazpitan, Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

IGARI (IGAL), ??:

Lengua euskara, nº 10 – Catecismo en bascuence, dialecto vulgar de Igal. Iruñeko Artxiboa an aspaldi fotokopiatuako orrietan ez dugu bestelako erreferentziarik ikusten. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

ORONTZE (ORONZ), 1857:

Lehenengo orrialdean zera irakur daiteke:

Abrégé de la Doctrine Chrétienne en le Dialecte Basque qu'ont parle dans le Val de Salazar Province de Navarre (Espagne), et particulièrement dans le Village de Oronz du même Val, présentée en cadeau à Monséigneur le Prince Imperial de France Lucien Bonaparte, dans la Ville de Ochagavia. Le 6 Novembre de 1857.

Azkeneko orrialdean, berriz, honako eskaintza xumea ageri da: *A Fr. Miguel Garcia, Abad intº de Oronz*, eta, horren azpian, *Atanasio Urrutia*.

Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

OTSAGI (OCHAGAVIA), 1834:

Doctrina cristiana en bascuence, escrita en 1834 y añadida años anteriores con varias preguntas y respuestas necesarias y principalmente sobre la misa, confesion y comunion. Del Mro. de Ochagavia Juan Marco Juanco. Cristioen Doctrinaren declaracioa pregunta eta errespuestaequi. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

EAURTA (JAURRIETA), 1866:

Catecismo doctrina cristianarna, Aita Gaspar de Astetec compoundua, zoin corregitric eta añadienzequin publicacembaita Exmo. eta Illmo. Ssaun Doctore Don Pedro Cirilo Uriz eta Labairu, Yruñaco Obispoaren ordenez bere obispadoen usutaco. Don Pedro José Samper eta Elizari Eaurtaco Apez Ssaunac bere errico uscarala izuliric bere feligresen usutaco – Eaurtan. 1866. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

EAURTA (JAURRIETA), 1869:

Jesucristo gure Jaunaren Evangelio sandua Según San Mateo. Don Pedro José Samper, Eaurtaco apez Ssaunac, Aita Amaten erdaratic Eaurta bereco uscarala itzulia – 1869. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

Hona, itzulpenarako, Samperrek erabili zuen testua:

“Nuevo Testamento – Traducido de la vulgata latina teniendo a la vista los textos originales, por el P. José Miguel Petisco, S. J., dispuesta y publicada por el Ilmo. Sr. D. Félix Torres Amat”.

Kontsultarako erabili dugun argitarapena, berriz, honako hau:

“5ª edición. Editorial Apostolado de la Prensa, S. A. Madrid, 1960”.

LABURPENA

Hirugarren saio honen bidez, zeinean ‘nor-nori-nork’ saileko adizki tripersonalak agerian ezarri ditugun, *Zaraitzuera aztertzeke ekarpen berriak* izenburu orokorrarenpean Eaurtako euskarari eskaini diogun ahalegin jarraituari amaiera ematera gatozkio. Hurrengo saioetan, ahal den neurrian eta ditugun datuen arabera beti ere, Zaraitzuko ibarreko beste zenbait herritan –Otsagi, Ezkaroze, Orontze eta Espartza, hain zuzen- eskuratu informazioa, gehi Ibiztan bildu apurren bat, lerro hauetara ekarri nahi genuke. Zaraitzuko euskara Louis-Lucien Bonaparte printze euskaltzaleak egindako mapa zoragarrian ekialdeko behe-nafarreraren esparruan kokaturik agertzen da, horretarako arrazoi nagusienetarik bat, antza, errespetuzko alokutibotasunaren erabilera izaki, ekialdeko euskalkien ezaugarri.

RESUMEN

Por medio de esta tercera entrega, en la que hemos presentado formas tripersonales del tipo ‘nor-nori-nork’, damos fin al trabajo que, bajo el título gené-

rico de *Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak*, hemos dedicado en una primera instancia a comentar de forma sencilla algunas características del habla vasca del pueblo de Jaurrieta, en el valle de Salazar. En próximas entregas trataremos hacer algo semejante valiéndonos de datos recogidos en otros pueblos de dicho valle, como Ochagavía, Ezcároz, Oronz y Esparza. El euskara de este valle fue incluido por el vascófilo príncipe Louis-Lucien Bonaparte, en su meritísimo mapa, dentro del dialecto bajonavarro oriental, siendo, al parecer, una de las razones de mayor peso para tal inclusión el empleo en dicho euskara de la alocución respetuosa, común a los dialectos orientales.

RÉSUMÉ

Grâce à cette troisième livraison, où nous avons présenté des formes tripersonnelles du type ‘nor-nori-nork’, nous mettons le point final à ce travail où, sous le titre générique *Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak*, nous avons tout d’abord commenté d’une façon simple, quelques caractéristiques du parler basque du village de Jaurrieta, dans la vallée du Salazar. Dans de prochaines livraisons, nous essaierons de faire la même chose en nous servant des données recueillies dans d’autres villages de cette même vallée, tels qu’Ochagavía, Ezcároz, Oronz et Esparza. L’euskara de cette vallée fut inclus par le prince bascophile Louis Lucien Bonaparte dans le dialecte bas navarrais oriental sur sa carte très méritoire, l’emploi dans ledit euskara de l’allocation respectueuse, commune à tous les dialectes orientaux étant, semble-t-il, une des raisons de plus grand poids pour une telle décision.

ABSTRACT

This third instalment, which deals with verb forms of the type ‘nor-nori-nork’, brings to a close the work which, under the general title of *Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak*, has mainly centred itself on commenting, in simple terms, some of the characteristics of the Basque spoken in the village of Jaurrieta in the Valley of Salazar. Further instalments will attempt to do something similar using information collected from other villages in the valley, such as Ochagavía, Ezcároz, Oronz and Esparza. The Basque language from this valley was included within the Eastern “Basse Navarre” (Lower Navarran) dialect by the scholar of Basque, Prince Louis-Lucien Bonaparte in his commendable map. One of the main reasons for such a decision was, it would appear, the use in this version of the language of the respectful speech forms common to Eastern dialects.